

Gernika Batailoia nazien aurka Euzkadik merezi zuen



Sants

Bartzelonako auzo
kooperatiboan barna

Michel Portal

“Musika garaikidean
inprobisatzea konpositorearen
botere absolutuari irri egitea da”

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irueta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko apirilaren 5a, 2.456. zenbakia

ASTEKO GAIA

EKONOMIA SOLIDARIOA Sants, auzo kooperatiboa chuntzen.
LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA / 4

PERTSONAIA

MICHEL PORTAL: «Etiketatu ezin nautenez ez naute beti ulertzen».
SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

ETXEBIZITZAK Aterpea izateko eskubidea nola bermatu.
IRUÑE ASTITZ LARUNBE / 14

IRITZIAREN LEIHOA

SOZIALDEMOKRAZIAREN KRISIA ETA NORTASUN BOTOA

ASIER BLAS MENDOZA / 18

BOTEREA GALTZEN HASTETIK HELDU DA BAKEA

MIKEL ASURMENDI / 19

ZORTZI ABIZEN ESPAINIAR IVÁN JIMÉNEZ / 20

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN Miren. KATTALIN MINER / 20

ZIRTAK Nola egin autokritika (jarraibide laburra). ANGEL ERRO / 21

ERDIKO KAIERA

XX. MENDEKO ERESIAREN GAURKOTASUNA

Milia Lasturkoaren itzala. ITXARO BORDA / 22

ELEARAZI BLOGAREN AGURRA Itzulerarik ez, itzulpenak nahi
adina. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 26

LITERATURA SAIOA RUIZ GONZALEZ / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 30

ALEA «Luke Skywalker sindromea»: pertsonaiak aktorea irentsi du.
GAIZKA IZAGIRRE / 31

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

GERNIKA BATAILOIA Euzkadiren askatasuna amets, nazien kontra
borrokan. HARITZ RODRIGUEZ / 36

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Baserritik otarrera, talde txikien
bidez eragin. LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA / 41

CANDY Berrindustrializazio saiakera Bergaran.
URKO APAOLAZA AVILA / 42

POLIKI-POLIKI EGITASMOA Haurrek Katalunian euskaraz egin ahal
izateko gunea. SAIOA LABAKA / 44

DEPARTAMENDUETAKO HAUTESKUNDEAK Sarkozy garaile, PS
hondatua, FN geldiarazia eta EH Bai indartsu. MIKEL ASURMENDI
/ 46

EUSKARA ALBISTEAK IGOR AGIRRE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Ukrainako gatazkak badu irabazlea: Monsanto du izena.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

OHARRA

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Apirilaren 19an itzuliko gara.

Sants, auzo kooperatiboa ehuntzen

Bartzelonaren bihotzean, urteak dira bestelako gizarte baterako bidean den komunitatea ari direla osatzen. Orotariko kooperatibek, zentro sozial autogestionatuek eta bizilagunen jarrerak bat egin dute Sants auzoan, alternatiba oasi gero eta oparoagoa sortzeko.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

BARTZELONA. SANTS. Kataluniako hiriburuan izan den orori ezaguna egingo zaio izena, besterik ez bada, hiria munduarekin lotzen duen geltokia dela-eta. Bertara heltzen dira abiadura handiko trenak, metroak, autobusak eta baita aireportutik datorren ferrokarrila ere. Geltokiari izena ematen dion auzoa eza-gutzeko ordea, Sant Antoni pasealekua hartu eta hegoalderantz jo beharra dago, bertako kale estu eta lasaieran barrena.

Lehen begiratuan zaila da antzematen, baina behinola herri eta beranduago langile-gune izandako auzoak badu besteetatik bereizten duen zerbait. Hainbat belaunaldiren borrokek bizirik mantendu duten kontzientzia sozialari esker, ekonomia solidario-ko -EHn “eraldatzaile” hitzez ere ezagutzen duguna— ekimen mordoak egin du aurrera bertan, autogestioa, kooperatibismoa eta elkartasuna oinarri.

Kontzientzia eta jarrera ez da beti nahikoa izaten ordea. Kasu gehienetan, kooperatiba batetik bestera metro gutxi batzuk besterik ez daude, eta bertako kideek asanblada eta auzolan ekintzetan egiten dute topo. Badituzte auzo mailako zenbait ekimen komun ere. Harreman sare horrek eta elkarlanak ahalbidetu du horrenbeste asmo oneko ideia proiektu bideragarri bihurtzea.

Hala dio auzoko kooperatiba eta ekimen ugari gertutik ezagutzen dituen Ivan Miró: “Egunero sortzen dira proiektuak, baina zaila da gero forma eman eta bizirautea. Kapitalismoaren balioei aurre egingo dien ekonomia bat sortzea ez da erraza, baina merezi du. Hori bai, oso modu komunitario eta saretuan egin behar da lan aurrera egin ahal izateko”.

“Egunero sortzen dira proiektuak, baina zaila da gero bizirautea, oso modu komunitario eta saretuan egin behar da lan aurrera egiteko”

Ivan Miró, La Ciutat Invisible

La Ciutat Invisible eta auzo kontzientzia

Ivan Miró berak Santseko Riego kalean dagoen kooperatiba batean egiten du lan. La Ciutat Invisible du izena, eta 2005ean sortu zuten, Can Vies eta L’Hamsa zentro sozial okupatueta zituzten erronka eta balioak euren ogibidera ere eramateko ahalleginean.

Gaur egun, bost bazkide dira, eta hainbat lan-esparru jorratzen dituzte. Nabarmenena saiakerez hornitutako liburu-denda da, baina ikerketan, diseinuan eta aholkularitzan ere aritzen dira. Ildo horretan, proiektuak aurrera eramateko ekonomia sozial eraldatzailearen bidea hartzeko prest dagoen jendea laguntzen dute. “Guk topatu ditugun oztupoak zeintzuk diren eta nola gainditu ditugun azaltzeko ahalegina egiten dugu”. Hein batean, Santsen bertan hainbeste kooperatiba sortu izanaren erantzule dira.

Erabakiak modu horizontalean hartu eta denek soldata bera izateaz gain, erakunde publikoek ematen dieten diru kopurua ere mugatu dute: “Diru-laguntzetan jasotzen dugunak ez du sekula zergen bidez ordaintzen duguna gainditzen. Independentzia mantentzeko hartutako erabakia da”.

Riego kalean bertan, La Ciutat Invisibleren erakusleihatik bi metro eskasera dago *La Directa* hedabide herritarraren egoitza. 2006an sortu zen, kontrainformazioa oinarri zuten hainbat hedabide txiki batu zirenean. Egun, hamabostero argitaratzen duten aldizkaria eta *directa.cat* webgunea Herrialde Katalanetako mugimendu sozialen bozgorailu nagusietako bi dira.



Argazkilari, kazetari eta abarren artean, Menorca edo Valentziaraino zabaltzen den 150 laguneko kolaboratzaile sarea osatu dute. Borondatezko lana egiten dute denek, eta haietako askok hilabeteen behin egiten dituzten bileretan parte hartzen dute, erabaki esanguratsuenak hartzeko.

Ferran Domènech *La Directa*ko kidearen arabera, objektibotasun faltsutik ateratzeko ahalegina egiten dute. “Herri mugimendutik gator, eta herri mugimenduentzat egiten dugu lan. Gizartea aldatu, alternatibak ikusarazi eta errepresioa eta boterearen gehiegikeriak salatzea da gure eginkizuna”.

Santseko kooperatiba sarearekin ere harreman estua dutela dio Domènechek: “Bakoi-tzak bere alorrean egiten du lan, baina auzoan harreman pertsonalak ere badaude, eta elkar laguntzen dugu edozein arazo sortzen denean. Auzo kontzientzia dugu, proiektu komun bat ari gara denon artean eraikitzen”.

Espekulaziorik gabeko pintxo ekologikoak

Riego kalean barrena jarraituz, Osa plaza gurutzatuta baina auzoaren izen bera daraman Sants kale zabalagora heldu aurretik, bada arreta ematen duen taberna bat. Kanpotik begiratuta ere antzematen zaio ez ohiko

La Col arkitektoen taldeak jardunaldiak antolatu zituen auzoko ondareaz. Irudian, Can Batlló gunean izandako eztabaidetako bat.

izaera: “Kopdemà, taberna kooperatiboa”, dio afixak. Izenak berak katalunierazko *donar un cop de mà* adierari egiten dio erreferentzia. “Laguntza eman” litzake euskarazko ordaina.

2013an jarri zuten lau lagunek martxan, haietako bi langabezian eta beste biak lan prekarioetan zirela. Oso gaztetatik Katalunian bizi den Zihargi Etxarte iruindarra da kideetako bat. “Tabernako beharra gogorra da eta lan baldintzak negargarriak izan daitezke beste norbaiten menpe bazeude. Orain gutxienez, gu geu ari gara gure soldata eta lan-orduak modu horizontalean banatzen”.

Bertako produktu ekologikoak lehenesten dituzte, eta kostuen araberako prezio politika dute, espekulaziorik gabea. Horri guztiari esker, auzoko kooperatiba eta ekimenetan parte hartzen dutenen bilgune bilakatu da urtebete eskasean; “auzoko taberna”.

Kopdemà ehunka garagardo eta patata tortila dastatutakoak dira LaCol arkitekto kooperatiba osatzen duten 14 kideak. Ez da harritzekoa, euren egoitza chun metro eskasera baitago, Ciceró kalean. Zoriak hala nahi izanda iritsi ziren bertara. Arkitektura ikasten ari zirela ezagutu zuten elkar, eta inpresora, maketak egiteko materiala eta frustrazioak

EKONOMIA SOLIDARIOA



LANDER ARRETxea

konpartitzeko asmotan, unibertsitateko lanak egiteko lokal baten bila hasi ziren. 2009a zen, eta haietako batzuek Kataluniako beste txoko batzuetatik etorri behar zutela-eta, Sants tren estazioaren alboan zegoelako hautatu zuten orain euren lantokia dena.


Unibertsitatea amaitu zutenerako ordea, auzoko giroan murgilduak ziren. Ordurako ezagutzen zituzten La Ciutat Invisibleko kideak ere, eta haien aholkuek lagundu zieten autonomo gisa lan egin beharrean kooperatiba bihurtzen. “Neurri batean, haiei esker gara kooperatiba gu ere”, aitortu dute.

Geroztik, asteleheneroko asanbladatan hartzen dituzte erabakiak modu erabat horizontalean: proiektuak onartu edo ez, lana nola banatu... Lehiaketa publikoetan parte hartzeari uko egin diote, esaterako. Baina ez

da hori LaColen bereizgarri bakarra. Arkitektura eraldaketa sozialerako tresna gisa bizi dute, eta hori lan guztietara eramaten ahalegintzen dira. Jasotzen dituzten lan eskaintzen zati handi bat, gauzak bestela egiten dituztela dakien jendearenak direla diote. “Pozgarria da egiaztatzea gure balioei eustekak lagun dezakeela proiektuak bideragarri egiten”.

Etxebizitza ere kooperatiba bidez

LaColeko kideek eskuartean duten proiektuetako bat auzoan bertan sortu den La Borda etxebizitza kooperatibaren lehenengo eraikina da. Lagun gutxi batzuk elkartu ziren hasieran, higiezinaren merkatutik kanpo etxebizitzaren arazoari konponbide kolektibo eta duina emateko asmotan. Pixkanaka eman diote forma, eta dagoeneko lortu dute Uda-



Sants auzoko ekonomia sozialaren mapa

- 1- Can Vies guneko okupatuaren berreraikitzea.
- 2- Ciutat Invisible liburu-denda / *La Directa* hedabidea.
- 3- LaCol arkitektoen kooperatiba.
- 4- Kopdemà taberna kooperatiboa.
- 5- Can Batlló guneko / La Borda etxebizitzak.
- 6- Coop57 finantza zerbitzuak / Ara.coop kooperatiba sustatzailea.
- 7- Lazzigags antzerki kooperatiba.
- 8- Pim Pam bideo-klub kooperatiboa.
- 9- Institució Montserrat irakaskuntza kooperatiba.
- 10- Papérs dekorazio elkarte.
- 11- Pretalleres San José desgaitasunak dituzten pertsonentzako lan elkarte.
- 12- Ambulàncies Catalunya SCCL garraio zerbitzua.
- 13- Algo Bueno argazkigintza estudioa.
- 14- Germinal produktu ekobiologikoen kontsumo taldea.
- 15- Cusó Tapissers zaharberritze kooperatiba.

*Iturria: Projecte Barrio Cooperatiu. Mapa honetan adibide esanguratsuenak azaltzen dira; zerrenda osoa ikusteko: sants.coop



Ezker-eskuin: auzotarrak Can Batlló berreskuratzeko lanean; Kopdemà taberna kooperatiboaren ataria; eta Riego kalea, Santseko mugimendu kooperatiboaren bihotzetako bat.

lak Can Batlló lantegi zaharraren alboan dagoen lur eremu bat uztea.

28 eta 31 etxebizitza artean izango dituen eraikina jasoko dute bertan, hainbat espazio partekatuekin: jantokia, haurrentzako guneak, erabilera anitzeko aretoa... Etxebizitzak ez dira norbanakoen jabetza izango, kooperatibarenak baizik. Horretarako, bertan biziko den elkarbizitza unitate bakoitzak –hala esaten diote etxebizitza bat beteko duen norbanako, familia, lagun talde edo dena delakoari– 15.000 euro jarri ditu. Bideragarria izan dadin, unitate bakoitzak hileroko 400 euro inguru ordainduko ditu, eta auzolanaekin eraikuntza kostuak ahal beste murriztuko dituzte. Bestetik, kooperatibak apurka ordainduko duen mailegua eskatuko du.

Eraikina betetzeko adina lagun elkartu dira jada, eta babes ofizialeko etxeen kasuen bezala, bertan bizi ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk ezarri dituzte. La Ciutat Invisible kide ere baden Hernán Córdobak dioenez, “urte amaierarako eraikuntza lanekin hasiko garela espero dugu, eta 2017an izango dugula bertan bizitzen hasteko aukera”.

La Bordak eta Santseko gainontzeko proiektu horizontalek kanpo finantzazioa ere izaten dute sarri. Ez dute ordea horren bila ohiko bankuetara jotzen. Eskura dute Coop57 finantza zerbitzuen kooperatiba, Riegoren paraleloa den Premià kalean.

Bertan, euren 3.000 bazkideek uzten dizkieten aurrezkiak erabiltzen dituzte gizarte

erlaketara helburu duten proiektuak mailegu bidez laguntzeko. 2008tik hona 1.200 mailegu eman dituzte, 45 miloi euro inguru utzita. Elkarlanak eta saretzeak finantzazioan lagun dezaketela frogatzen du.

Aurrezkiak utzi dituztenek euren diruarekin lagundu diren proiektu guztien berri dute, etxean jasotzen duten aldizkariaren bitartez, Xavi Teis komunikazio arduradunaren arabera: “Gure ekarpena da frogatzea finantzak kudeatzeko beste modu batzuk ere badaudela, bideragarriak eta berdintasuna eta gizarte justuago bat sortzeko baliagarri direnak”.

Ekonomia sozialaren zentrorantz

Coop57 atzean utzi eta Premià kaletik gora, lehenago aipatutako Sants kale zabala dago. Mendebalderantz jarraituz gero, berehala iristen da bat auzoak eta kaleak bezala Sants izena daraman plazara. Bertatik hegoalderantz eginda joan liteke La Borda kooperatiba eraikiko den lurretara. Bidean ordea, Can Vies zentro sozial autogestionatua dago, zauriak agerian dituela.

1997an auzoko hainbat gazte okupatu zutenetik hamaika kolektibo eta herri mugimenduren bilgune izan da Can Vies, 2014ko maiatzean Bartzelonako Udalaren aginduz desalojatu eta eraiten hasi ziren arte. Milaka lagunuen protesten bidez eraispena geldiaraztea lortu zuten, baina Can Viesen zati handi bat suntsitua zuten Esquadra Mossoek ordurako. “Gela guztietako lurra zulatu zuten, berriro sartu ahal ez izateko”, Anak kontatu duenez. Beste

“Auzoan harreman pertsonalak ere badaude, eta elkar laguntzen dugu edozein arazo sortzen denean. Auzo kontzientzia dugu: proiektu komun bat ari gara denon artean eraikitzen”

**Ferran Domènech,
La Directa**

Ehungintzatik sorturiko tradizio kooperatiboaren memoria berreskuratuz

PROIEKTU berriei bultzada emateaz gain, atzera begira ere jarri dira Ivan Miró eta La Ciutat Invisibleko gainontzeko kideak. “Maila lokalean kooperatibismoa indartu nahian gabiltza, eta horretarako garrantzitsua da gure historian izan duen pisua ezagutzea. Iragan kooperatiboa ezagutzeak lotura emozionala sortzen du, eta hori ere bada gauzak beste modu batera egiten hasteko bultzada”.

Helburu horrekin, Sants auzoan izandako mugimendu eta kooperatibei buruzko informazioa bildu eta hainbat erakusketa egin dituzte, baita *Les cooperatives obreres de Sants* (Santseko langile kooperatibak) liburua plazaratu ere.

Bertan kontatu dutenez, XIX. hamarkadaren erdialdean Kataluniako ehungintzako lantegi handienak eraiki ziren Santsen, La España Industrial eta Can Batlló tartean. Nekazari herrixka zena langile gune bilakatu zuen horrek. 1897an Bartzelonarekin bat egin zuen metropoliaren parte bilakatuz, eta garai bertsuan sortu ziren bertan lehenengo sindikatu eta kooperatibak. Hastapen haietan kontsumo kooperatibak ziren gehienak, bitartekariei uko egin eta euren bizitza kalitatea apur bat hobetzea helburu zutenak. Horixe izan zen geroago sortuko ziren orotariko



proiektu horizontalen hazia: antzerki taldeak, ekoizpen kooperatibak... 1939tik aurrera, frankismoak kolpetik ezabatu zuen ekimen sozial oro, baita Sants auzoan ere.

LANDER ARRETxea

hainbat auzotarrekin batera, asteburuak eta astean zehar dituen tarteak baliatzen ditu Can Vies berreraikitzen laguntzeko. Euren denbora eta gaitasunak horren alde jartzeko prest daudenen sare zabalari esker, zati batzuk laster berririkiko dituztela espero dute.

Can Vies-etik behera jarraituz, bost minutu eskasean iritsi liteke Can Batlló lantegi zaharrera. 30 urte iraun zuten Udala eta bizilagunen arteko tirabiren ostean, 2011n okupatu zuten auzokideek. Udalak lantegi zaharreko bloke oso bat utzi beste erremediorik ez zuen izan. Geroztik, adin eta zaletasun anitzeko ehunka auzotarrak kudeatzen dute 11. blokea. Taberna eta aretoaz gain, eskalatzeko gunea, erakusketa gela, tailerrak egiteko guneak eta liburutegia ditu. Auzolanean egokitu dute eraikina, eta autogestioaren bitartez, erabat bideragarria izatea lortu dute.

Bertako tabernan egiten du lan Juliak. Dionez, auzoko mugimendu sozialetan parte hartu izan duten belaunaldi guztietako kideek bat egin dute Can Batllón, eta 30 eragilek baino gehiagok erabiltzen dute gunea. Elkarlan hori kudeatzeko, lan taldeak astean behin

biltzen dira eta hilean behin asanblada orokorra egiten dute.

Laguntzen, edo besterik gabe, aisiaz gozatzeko, 11. blokean izaten dira maiz auzoko kooperatibetako kideak. Ez da hori ordea ekonomia sozial eraldatzailea eta Can Batlló lotzen dituen hari bakararra. La Bordaren etxebizitza kooperatiboa ere lantegi zaharraren lurretan eraikiko da, eta beste bloke bat kooperatiba haztegi bilakatu nahi dute. Oraindik Udalarekin xehetasunak adostea falta den arren, izena pentsatu dute dagoeneko: Coopolis.

Guztira 42 gune izango direla aurreikusten dute, eta hainbat kooperatiba bertan ezartzeaz gain, proiektu kooperatibo berriak martxan jartzeko formazioa eta baliabideak eskainiko dituzte. Sarea zabaldurik ez ezik, trinkotu ere egingo luke horrek, Can Batlló Santseko ekonomia sozial eraldatzailearen erdigune bilakatzeraino. Aurrerapauso galanta litzake geltoki erraldoiaren izena daraman auzoa izateari utzi, eta gauzak bestela egin daitezkeela frogatzen duen erreferentziatzeko auzo kooperatibo bihurtzeko bidean. ■

30 urte iraun zuten Udala eta bizilagunen arteko tirabiren ostean, 2011n Can Batlló okupatu zuten auzokideek. Udalak lantegi zaharreko bloke oso bat utzi beste erremediorik ez zuen izan

PERTSONAIA

MICHEL PORTAL

«Etiketatu ezin nautenez ez naute beti ulertzen»

“Eguzkiak urtzen du goian gailurretako elurra...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



“1935ean, Baionan...” dira zure martxaren lehen notak.

Erronkarikoa nuen amatxi, euskalduna. Ezinbestekoa da erroen galdera musikarako, eta nik, betidanik ukan dut erakarmen menderakaitz bat musikarekiko. Harmonie Bayonnaise bandako zuzendaria nuen aitatxi, eta ohartzerrako, Bordele eta Parisko kontserbatorioetara

bidean jarri ninduen Baionako musika eskolako irakasleak. Lehiaketa internazionalak zein sariak alegia, deus ez jiten zitzaizkidan, eta aldi berean, dantzalditan, festetan nahiz klasikozaileen zirkulu itxietan jotzen nuen. 14-15 urte nituenetik naiz musikari profesionala. Ez dut inoiz arazorik izan Miarritzeko Kasinoan, Pigalleko lokal ilunetan edo musikaren ten-

MICHEL PORTAL

pluetan jotzeko. Musika bizi nuen, dohainak nituen eta aurreiritzi gutxi. Hala, irratia entzunez deskubritu nuen jazza. Ahotsen tinbreek eta musikaren koloreak sorgindu ninduten. Jazz egiteko beltza izan behar dela dio legendak, Amerikako Estatu Batuetan ikasi behar dela mitoak. Ez bat ez bestea, autodidakta naiz ni.

Free jazz mugimendua Frantziara ekarri zuen autodidakta.

AEBetan sortu zen Free mugimenduaren muin politikoa arrazen arteko segregazioaren salaketa zegoen. Gaiak hunkitzen ninduelako, borroka anti-frankistek nigan oihartzuna zutelako eta Aljeriako gerran 30 hilabete pasa berria nintzelako, garai hartan arnasten zen askatasun premia ekarri nahi genuen jazzera. 1968a zen, eta gazte bati “zergatik parte hartzen duzu iraultzan?” galdeginez gero, “ez dudalako aita bezalakoa izan nahi!” emango zizun arrapostu. Bizitzan zein jazzean, egituretatik eta inposatutako markoetatik libratzeko beharra genuen, norma eta kodeez beste egitekoa, etiketak haustekoa. Ordura arte egin ez zena egin nahi genuen, errutinak puskatu, ongi ikusitako inertiaren gurpilak zulatu.

Askatasuna zen zulatu ezin zen bakarra?

Free Jazz diskoak eta *Portal Unit* taldeak erabateko inprobisazioari bidea eman eta askatasuna hauspotzea zuten xede. Ez genekien nora gindoazen, ez genekien zeren bila genbiltzan, baina ez zitzaigun axola. Gerora ikasi dut behin kausitutakoan jakiten duzula zeren xerka ari izan zaren, ez lehenago. Okupatuak egotea zen gure kezka bakarra, besterik gabe ekitea, egitea. Eztanda hori belarri txarrez jaso zuten jazzaren *establishment*-ak zein kritikaren zati handi batek. Edozer edonola egiten genuela, ongi jotzen ez genekielako inprobisatzen genuela... Ahal zutena eta gehiago larrutzen gintuzten. Guk ordea, entzuleak genituen aitzinean: deskubrimentuaren, esperimentazioaren eta bilaketaren gustua zuen jendea. Izan ere, musika ez zen oraindik kontsumo arrunterako produktu formateatua.

Labanaren ahoa da inprobisazioa?

Ez diot alferrik beti dela hastapena istorioaren ederrena. Elkar entzunez, erabateko askatasunean, arriskuak hartzen dituzunean, une bakan eta errepikaezinak sortzen dira, baina baita tentsioa eta liskarrak ere. Labanaren ahoan ikusten da bakoitzaren zinezko izaera. Berehala antzematen duzu nor den ahohandia, nor insolidarioa, nor txalo-merkezalea, nor fartsantea, nor jostaria, nor artista

hutsa... Horri kritikaren erauntsia eta interes profesionalak gehitzen badizkiozu, fite egiten duzu miseria humanoarekin topo. Ezagutzen ditut Free mugimenduan parte hartu izana ukatu dutenak, bizi osoan malerus sentitzearainoko lotsa aitortu didatenak. Guk alta, ez geneukan ez ezer irabazteko, ez ezer galtzeko. Horrek salbatu gaitu.

Fartsanteak, jostariak, artista hutsak... Zer zineten zuek?

New Phonic Art taldean, jotzen genuenari buruz ez solastatzea zen gure lema. Ez aitzinetik, ez ondoren. Ez genekien nora gindoazen, baina bagindoazen. Inprobisatu eta kito. Alabaina, musika garaikidean inprobisatzea egurra sutara botatzea zen, konpositorearen botere absolutuari irri egitea. Inprobisazioa beti izango da arriskutsua inprobisazioan erabat murgilduta ez daudenentzat. Ikusi dut pantaila bezain karratuak diren konpositoreen gorrotoa euren piezaren erdian dibagatu dugularik. Era berean, ezagutu ditut inprobisatzen hasi eta beti frustratuta bukatzen zuten musikari bikainak. Inprobisatzean ezin duzu “tronpatu naiz” esan, ezin zara “astia izan banu ez nuen hori horrela joko” pentsatzen hasi. Inprobisatzeko zure burua ahanzi behar duzu, haizeari segi, eta haizeari segitzeko, ezinbestekoa da konpartitzeko grina, harremana.

Eta harremanak haizea direnean?

Zoritarrez, errelebo bakar bat eman gabe beti gurpilean doazen txirrindulariak nola, asko eskatu eta gutxi ematen duten musikari gehiegi dago. Oso zaila da arrastoa uzteko dena emateko prest dagoen jendea topatzea. Arrakastaren formularekin altxorraren munta deskubritzen dutenean, batzuk bertan-goxo egoten dira errapeari azken esne tanta atera arte, eta beste batzuok ospa egin dugu bigarren tragarako. Parean 30.000 ikusle dauzkata jakinaraztean “eta zer?” asaldatzen dira batzuk, beste batzuek “hori zenbat euro da?” galdetzen duten bitartean. Okerrena da liderrak euren menara ibiliko diren taldekideak nahi dituztela. Liderrak bere hegemonia kolokan sentitzen badu zu zapaltzen saiatuko da. Inprobisatzen hasten banaiz ez da inor izorratzeko, txitean pitean mundu ezezagun batera iristeko baizik. Absurduak iruditzen zaizkit lehia eta oilarkeria artistikoa, baina tamalez, traizioen mundua da musikarena.

Traizioa da inprobisazioa larritasunarekin eta estutasunetik ateratzeko trikimailuekin lotzea, jendarteak lotzen duen gisan?

Ezin liteke nonahi inprobisatu. Areto txiki eta bildu batean inprobisatzen badut inork



NORTASUN AGIRIA

Michel Portal, Baionan sortua 1935ean. Jazz munduko klarinetista eta saxofonista ospetsua; puntako interprete klasikoa; J. Brel, Barbara edo Léo Ferré bezalako artisten primerako laguntzailea; filmen eta telesailen soinu banden egile oparoa... Musikari sailkaezin bezain polibalentea da Michel Portal. Inprobisazioa lematzat, ordura arteko guztia kolokan jartzera zetorren Free jazz mugimenduaren aitzindaria izan zen Frantzia zein Europan. 25 disko, 100 soinu bandatik gora eta inoiz jaso ez dituen hainbat sari ditu bizkarrean.

ez dit esango ona edo txarra den. Jendeak badaki inprobisazioa hauskorra dela, kontzentrazioa eskatzen duela, ezusteetarako prestutasuna, denbora. 3.000 laguneko aretoan, aldiz, noraezean hasten bazara, bat

sudurrean hazka hasiko da, bestea zer afaldu behar duen erabakitzen, eta baten batek zure kontzertura zetorrela zioen mezua Facebooketik ezabatuko du. Hor kondentuta zaude lehen segundotik sendo eta artifizio guztiekin ekitera, jendeak zugandik espero duena lehenbailehen ematera espero ez duen lekuetara eramaten saiatzeko. Ondorioz, jaialdi handietan musika prestatu egiten dut. Badakit noiz ezin dudana hankarik sartu, noiz ezin naizen dianaren erdian jarri. Ez dakizunean parean zein publiko daukazu, politikoki non kokatzen den, zure zaleak diren ala sozialki posizionatzeko etorri diren, euren uzkia ala zure musika daukaten buruan... zer konpartitzen duzu? Zer zentzu du arriskuak, ez baduzu deus elkarbanatzen? Ikasi dut non egin dezakidan jolas eta non gainditu behar dudana azterketa.



OFF THE RECORD

Piano atzean

Guretzat zabaldu dute Parisko jazz areto ezaguna. Galde-
ra-erantzunen artean anekdota musikatuak kontatu diz-
kigu Michelek, eta Erronkarin entzun zuen txiste baten
berri eman ondoren, piano atzean eseri da argazki sesio-
rako. Ez omen zaio argazkietarako posatzea gustatzen,
ez ei dago behar bezala orraztuta, eta goizean aurpegi
txarrez altxa dela salatu omen dio ispiluak. Jotzen hasi
eta denak ahaztu zaizkio, ordea. Edozeinek esango luke
80 urte betetzear dela.

Egungo panorama musikalean, azterketa anitz
eta jolas gutxi ez ote dagoen...

Bukatu dira arteak sorkuntzarako eta esperi-
mentaziorako baliabideak justifikatzen zituen
sasoia. Garai batean, fortuna balio zuten hiru
kamioi mugitzen genituen kontzertuetara,
soinu jakin baten bilaketan laguntzen zigun
NASA-koa zirudien ingeniari tropa... Dirutza

kostatzen zen, baina ekoizleei ez zitzaion hain-
beste axola, arriskuak hartzeko prest zeuden.
Gaur hori guztia mugitu eta aretoa betetzen ez
baduzu, ekoizleak bere buruaz beste egiten du
kontzertua bukatzerako. Hala, esperimentazio-
rako oso bide estu eta bazterrekoak baizik ez
dira gelditzen, eta artistak balore ekonomiko
bihurtu dira. Horregatik aldatu da hain gutxi
sorkuntza 1970eko hamarkadatik hona. Horre-
gatik maitatu behar dira artistak, zertan ari
diren ulertzen saiatu, enpatizatu... Aurreiritzirik
gabe. Esaterako, pro-amerikartasun izugarria
dago jazzean. Ezagutzen duzu jazz musikari
portugesik? Zergatik ez dago jazz musikari
espainiarrik Frantzian jotzen duenik? Jaialdiak
amerikarrez josita daude eta, nola esan, ez dira
denak puntakoak. Globalizazioari kolonizazio-
aren antz handia hartzen diot.

**Globalizazioari nortasun eta estilo propioz egi-
ten zaio aurre?**

Bai, baina berezia zarela pentsatzen duzun
unean bihurtzen zara arrunta. Beti saiatu

naiz pistak nahasten, ez nazatela deusekin identifikatu. Klasikoa jotzen nuen, Barbarari, Jacques Brel-i edo Léo Ferré-ri laguntzen nien, jazz kontzertuak eskaintzen, musika garaikidean esperimentatzen... Erabateko polibalentzian bizi izan naiz, eta etiketatu ezin nautenez ez naute beti ulertzen. Niregandik espero dena egiten ez dudanez, deserosoa naiz batzuentzat, traba besteentzat. Jose Arthur irrati-gizon zendu berriak ilaran sartu nahi ez zuen klarinetisten komantxea naizela zioen. Arazoa da orain mundu guztiak dakiela nor den Michel Portal, Michel Portalek ezik.

Hotzikara ematen du.

Etengabeko izuan bizi naiz, antsietate betierekoan. Panikoa diot jadanik egindakoa errepikatzeari, errutinari. Zailtasunean sortzen dut, nekezian. Ez naiz bizitzea gustatuko litzaidakeen eremuan bizi izan. Nekagarria zait klasikoa lantzen ari naizenean jazz bertsioa entzutea azpitik, eta jazzarekin nabiltzanean harmonia klasikoak agertzea zerumugara. Gauza bera Euskal Herriarekin. Inoiz itzuliko ez naizen herria utzi dut atzean. Baionako ostatuetako hizkera kantaria eta mutxiko saioetako atabala iltzatuta dauzkut kaskoan. Galtzeko beldur naiz, eta aldi berean, ezin ditut kanporatu. Nire buruarekin etengabeko kontraesanean bizi naiz, exilio modukoan, beti asegaiz, inoiz ez satisfos.

Horregatik ez zara inoiz eman dizkizuten sariak jasotzera joan?

Ezin dut alfonbra gorriarik zapaldu. Ez diot ez logikarik ez plazerik ikusten. Lotsa izango da agian, harrotasuna beharbada, indiferentzia akaso, baina alfonbra gorri bat parez pare jartzen didatenero trabatu eta erortzeko arriskua sentitzen dut. Erortzeko arriskuak musikan kitzikatzen nau, inguruko parafernalia guztian ikaratu. Gainera, ez dit onik egiten irabazi dudala jakiteak, sariarekin agertzeak.

Karrikan gelditzen nautenean ere izoztuta erantzuten dut, eta ez da gustatzen ez zaidalako, egoa baretzeko izango dudana lana irudikatze hutsak buruko mina sortzen didalako baizik. Badakit ez dela dotorea, jendetasun gehiago erakutsi beharko nukeela, baina nire beldur eta miseriak kudeatzen aski lan daukadanez, nire bidetik desbideratzen nauen orori egiten diot uko.

Zu bezalako "oholtzako piztia" batentzat desbideratzea, zinema eta telebistarako soinu bandak egitea dela entzungo zenuen han-hemenka.

Betidanik gustatu zait zinema, eta betidanik lotu ditut soinuak irudiekin. Mozanbiken, esaterako, bidaia koaderno bat egin nuen bertan ikusi eta entzundakoak harilkatuz. Hori hala, izugarri gozatzen nuen soinu bandak sortzen, erraz irteten zitzaizkidan, musikariek lan egin beharrean makinekin jarduteko agindu eta gogogabetu nintzen arte. Oso sentibera naiz inguruan daukadanarekiko. Pentsamenduak, bizipenak, erreakzioak, sentimenduak, irudimena... interesatzen zaizkit, ez makinen perfekzioa. Ez daukat ez mugikorrik, ez ordenagailurik, ez internetik. Zergatik? Segur aski, ez dudalako besteak bezalako izan nahi. Ez dudalako autobus edo metroan mugikorrari lotuta doazen artaldekoa izan nahi. Bagoian, euren trepetetatik zintzilik 40 lagun batera hizketan entzuten ditudanean, ez dut jakiten zer egin. Begira egoten natzaie baina ez dut jasaten. Ez dut ulertzen bat-batean gainera etorri zaigun aro hau. Ez dut ulertzen ordenagailua musikatresnatzat hartzea. Are gehiago, teknologia musikara tranpati asko ekarri duela iruditzen zait. Oholtzan poza eta musikari onak badauzkat eraldatzen denetakoa naiz, etxean bakarrik bat parean jotzen ez dutenetakoa. Ez naiz ordenagailu bat, baina zorionez, nire bizitzaren soinu banda nik idazteko zoria izan dut. ■



**MODELO
ARETOA**
EKITALDI KOPURUA
2012KO AZAROA - 2015KO MARTXOA



ZINEMA ZAHARRETIK KULTURA EREDU BERRIA

ETXEBIZITZAK

Aterpea izateko eskubidea nola bermatu

“Etxebizitzak, kaleratzeak eta alternatibak” mahai-ingurua antolatu dute ikasleek Leioako campusean, bigarren urtez egindako Herri Unibertsitateen barruan. Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko moduez aritu dira Kaleratzeak Stop, Elkartzen, Errekaleor eta Maison13 ekimenetako kideak.

| IRUÑE ASTITZ LARUNBE |



LEIOATIK

Leioako Herri Unibertsitatean antolatu zuten “Etxebizitzak, kaleratzeak eta alternatibak” mahai-ingurua. Irudian, Elkartzen, Kaleratzeak Stop, Maison13 eta Errekaleor mugimenduetako kideak, ikasleekin batera.

EUSKAL HERRIAN bizi diren guztientzako oinarrizko eskubideak onartzea du helburu Elkartzen mugimenduak. Mugimenduko ordezkaria izan da hitza hartzen lehenengoa: oinarrizko eskubide bati —etxebizitza izateari— etekina atera nahian merkaturatzea da arazoa. Desjabetzeen gaia pil-pilean egon denean, instituzioek ez dutela ezer egin ere salatu du, eta etxebizitzaren arazoa konpontzeko erakunde publikoek egiten duten inbertsioa oso urria dela. Denei aterpea bermatu aldera, etxebizitza parke publikoa egotea beharrezkoa ikusten du Elkartzenek, eta horri lotuta, etxe hutsen aurrean neurri legalak hartzeko premia aldarrikatu du: “Alemanian, Italian, Suitzan edo Ingalaterran adibidez, etxe bateko jabeak leku horri ez badio

erabilerarik ematen, estatuak bere gain hartzen du etxearen erabilera soziala”. Halaber, eskubideak bermatzen ez diren bitartean, “okupazioa zilegi da borroka tresna modura, baita molde berriak eraikitzeko tresna gisa ere”, adierazi du Elkartzeneko ordezkariak.

Izenak dioen moduan, etxe kaleratzeak etetea eta horretarako desjabetze arriskuan dauden herritarrak laguntzea da Kaleratzeak Stop mugimenduaren xedea. Bizkaiko ordezkarietatik etorri den kideak azaldu duenez, desobedientzia eta erresistentzia pasiboa dituzte tresna nagusi, kaleratze mehatxuei aurre egiteko. Funtzionatzeko bi modu bereizten dituzte: ekintza taktikoak, epaitegietan garatzen duten jardunari dagokiona, eta alderdi politikoekin lobby lana egitea,

“Alemanian, Italian, Suitzan edo Ingalaterran, etxe bateko jabeak leku horri ez badio erabilerarik ematen, estatuak bere gain hartzen du etxearen erabilera soziala”

Elkartzen

herritarren beharrak kontuan hartuko dituen Etxebizitzaren Euskal Lege bat onartu dezaitez. Bankuek etxebizitza-paketeak inbertsio funtsei saltzen dizkietela azpimarratu nahi izan du mugimenduko partaideak.

Maison13 eta Errekaleor, okupazioaren esperientziak

Maison13 Bilboko Alde Zaharrean zegoen etxe okupatua zen. 2010ean okupatu zuten lehen aldiz, eta etxebizitza kolektiboa osatu zuten bertan. Bi urtez martxan izan ondoren, 2012an hutsarazi zuten. 2014an, Erribera13tik joanarazi ostean berriz ere okupatu zuten eta berriz ere bota zituen Ertzaintzak, urte amaieran. Egun, espazio fisikorik ez daukaten arren, bizitza proiektu alternatiboak garatzea dute helburu, autogestioaren bidez. Maison13ko lagunek argi dute: etxebizitza eskubide eza da arazoa eta aurrera egitea da bidea: “Ez dugu ikusten inori ezer eskatu behar diogunik gure eskubideak bermatzeko. Guk geure bizitza nahi dugun moduan eraiki nahi dugu”. Okupazioaren eta erresistentziaren garrantzia azpimarratu dute: “Ekonomiak kolonizaturiko bizitzaren aurrean, erresistentzia da duintasuna ematen diguna”. Unibertsitate mailan, harreman sarea sortzea proposatu dute eta guneak okupatzetik harago, bertan proiektu autogestionatuak garatzeko gonbita luzatu die ikasleei: “Oso garrantzitsua da enpresa mundutik egin duten unibertsitatearen kolonizazioari buelta ematea. Horretarako alternatibak sortu behar dira”.

Herri Unibertsitateen loratzea

LEIOATIK!, Buiaka! eta Haraba! ikasle proiektu komunikatiboek, Ibaeta eta NUPeko ikasleekin batera, Topatu.info-k koordinatutako dokumentala egin dute elkarlanean: *Haziak, Herri Unibertsitateen loratzea*. Ohiko irakaskuntzaren aurrean, campus bakoitzeko ikasleek Herri Unibertsitateen bidez eraikitako alternatiba prozesua nola bizi izan duten jaso du dokumentalak, testigantza ugari bilduz. Martxoaren 31n aurkeztu dute dokumentala eta ikusgai dago Topaturen eta ARGIAren webguneetan. Herritik herriarentzat ikasleek eraiki nahi duten hezkuntza eredua da Herri Unibertsitatea, gobernuetatik iritsitako azken erreformei aurre egiteko tresna izan daitekeena.

Errekaleor Gasteizko auzo berreskuratutik ere izan da ordezkariarik. Kontatu duenez, auzoa botatzeko eta etxebizitza berriak eraikitzeke plana prestatu zuen Gasteizko Udalak, baina 2013an ikasle talde batek Errekaleorreko eraikin bat okupatu zuen. Auzoak ematen zituen aukerak ikusi eta alternatiba integrala planteatu zitekeela ondorioztatu zuten. Gazteen ikuspegia gehitu dio mahai-inguruari Errekaleorreko kideak: “Etxebizitza behar bat da eta gazteok behar hori gehiago sumatu dugu, baliabideak urriak direlako: lana lortzea zaila dugunez, gurasoen laguntzaz eta jende askorekin batera alokatzea baino ez zaigu geratzen”. Pertsonalki, okupatzea oso aberasgarria dela iritzi dio: “Egoera horretan bizitzeak irudimena eta elkar zaintza garatzen ditu, eta gure kasuan, auzoa zaintzea ere badakar”. ■



ogiaren egia

Ogi biologikoak

**Harri errota
xehe-tutako
irinarekin
egindako
ogiak**

Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu



CAMPOS

ETA

David de Jorge

CAMPOS

David de Jorge

II. Herri hezitzailea, eskola herritarra

jardunaldiak



FINLANDIAko hezkuntza eredugarria ezagutzen



**Apirilaren
24an eta 25ean
Donostiako KURSAALen**

Duela bi urte Francesco Tonucci pedagogoa eta “Haurren hiria” egitasmoaren sortzailearekin hasitako bideari jarraipena emateko, oraingoan, ikasle guztiak kontuan hartzen dituen Finlandiako, Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat esperientzia ezagutuko ditugu. Antolaketan, hezkuntza, aisialdia, euskara eta kulturako 12 eragile izan ditu bidelagun Hik Hasik.



El Martinet

Katalunia

Nori zuzendua: irakasleei, hezitzaileei, Udaletako zinegotziei eta teknikariei (parte-hartzea, berdintasuna, euskara, gazteria, aniztasuna, kultura, lurralde antolamendua...), gurasoei, eta heziketan interesa duen edonori zuzendutako jardunaldiak dira.



Apirilaren 24an:

Heziketa ardatz duen HERRIA

- Finlandiako hezkuntza. **Leo Pakhin.**
- Hezkuntzaren garrantzia. **Koldo Saratzaga.**
- Herri-hezitzaileen sarea. **Lorea Agirre etab.**
- Gipuzkoako Foru Aldundiko **Gaztematika.**
- Euskal Herriko **hainbat esperientzia.**

Apirilaren 25ean:

Herrira begiratzen duen ESKOLA

- Finlandiako eskolen parte-hartzea. Haurra nola hartzen duten bere osotasunean.
- **El Martinet**, Kataluniako eskola berritzailea.
- EHuko eta HUHEZIKo irakasleak.
- EHko **hainbat esperientzia: Harremonak...**

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus helbidean

SEMIOSIAZ

Gipuzkoako diputatuak dionean:

<EHn bizi garen guztioak gara
EUSKAL HERRITARAK. BERDIN
Caceresen, Segovian, Burgozen,
Arabian edo GIPUZKOAN jaioakoak>

ZERA DIO:

<EHn bizi garen guztioak gara
EUSKAL HERRITARAK, ESPAINIAR
GAREN BER>

ZEREN ZERA ERRAN NAHIKO BALU:

<EHn bizi garen guztioak gara
EUSKAL HERRITARAK. BERDIN
HERRIAN NAHIZ ATZERRIAN jaio>

HONELA LERRAKE:

<EHn bizi garen guztioak gara
EUSKAL HERRITARAK. BERDIN
ESPAINIAN edo EUSKAL HERRIAN
jaioakoak>

edo ARE zehatzago:

<EHn bizi garen guztioak gara
EUSKAL HERRITARAK. BERDIN
FRANTZIAN, ERRUMANIAN, GHANAN,
TXINAN, ESPAINIAN edo EUSKAL
HERRIAN jaioakoak>



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Sozialdemokraziaren krisia eta nortasun botoa

MENDEBALDEKO alderdi sozialdemokrata gehienek aspaldi utzi zituzten jatorrizko ideologiak eta programak albo batera kapitalismoa gogoz besarkatzeko. Halere, 1980ko hamarkada arte zentro-eskuineko alderdiek baino jarrera birbanatzaileagoa izan zuten politika publikoetan eta esku-hartzaileagoa ekonomian. Ondoren, egun bizi dugun ezker-eskuin ardatzaren desgertze prozesua abiatu zen. 1990eko hamarkadan, Sobietar Batasunik gabeko panoraman, politika neoliberalak nagusitzen hasi ziren Europan eta ondorioz, kaleko herritarrentzat geroz eta zailagoa izan zen kolore desberdineko gobernuen arteko diferentziak topatzea politika sozioekonomikoetan. Arazo horri aurre egiteko, sozialdemokraziak bere burua berrasmatu zuen agenda postmaterialistarekin.

Garbi dago hurrengo urteetako lehia nagusia Frantzian eskuinaren eta eskuin muturraren artekoa izango dela. Nortasun politikak eta soberania egongo dira eztabaidan eta horiei lotuta agertuko da soilik sozio-ekonomia

Zentro-ezkerreko alderdiek liberalen bertsio erradikal modura aurkeztu zuten beren burua, balore moral “irekiak, kosmopolitik eta askatasun indibidualen aldekoak” defendatuz. Hor aurkitu zuten eskuineko alderdietatik desberdintzeko modu bat. Kontua da arlo horietan lorpenak lortu ahala agenda politikoan garrantzia galdu dutela, eskubide berriak egonkortu direlako edota eskuineko alderdiek toleratu edo bere egiten dituztelako. Horrela, beste behin ezker-eskuin ardatzaren desberdintasunak desitxuratu egin dira, eta hori gertatu ez den kasuetan, krisi ekonomikoak alboratu ditu diskurtso postmaterialistak gai sozio-ekonomikoen mesedetan, frustrazio handia sortuz, bereziki Europako hegoaldean eta Mediterraneon.

Lehen ezker-eskuin politiken desberdintasunak txikiak baziren ekonomian, orain Europar Batasunak gehiago txikitu

ditu inposatzen dituen politikekin. Horren aurrean alderdi politikoek beren boto fideltasuna mantentzeko duten tresnarik inportanteena lurralde eta nazio identitateari loturiko elementuen defentsa da. Ez dira garai onak sozialistek hainbeste “defendatu” duten ikuspegi kosmopolitarentzat. Ideologia klasikoek utzitako hutsunea nazioak hartu du eta Manuel Valls esparru horretan leku hartzen saiatu den arren, sinesgarritasun handiagoa dute eskumakoek.

Frantziako departamenduetako hauteskundeetan sozialistek —eta ezkerak oro har— hiriguneetan soilik moteldu dute gainbehera. Bi irabazle garbi egon dira: zentro-eskuina eta Fronte Nazionalea. Hauteskunde hauen berezitasunak kontuan hartzen baditugu, tokian tokiko handikiek protagonismo handia dute, eta FNk sekulako emaitzak lortu ditu botoen %25 eskuratuta. Garbi dago hurrengo urteetako lehia nagusia Frantzian eskuinaren eta eskuin muturraren artekoa izango dela. Nortasun politikak eta subiranotasuna egongo dira eztabaidan eta gai sozio-ekonomikoak haiekiko lotura baino ez du izango.

Israelen antzera gertatu da, oposizioan zegoen zentro-ezkerrek krisi ekonomikoaren erdian eta bizitza garestitze ikaragarriaren aurrean ezin izan ditu hauteskundeak irabazi. Eskuinak beldur identitario guztiak astindu eta horren aurrean zentro-ezkerren proiektu sozial ahul eta desitxuratuak ezin izan du konpetitu, izan ere, eskuinak gutxienez zer edo zer haitemangarria proposatzen du.

Salbuespenen artean Andaluzia dago. Hain zuzen ere bertako Alderdi Sozialista herrialde horren nortasunarekin identifikatzen delako. EAEn edo Katalunian alderdi nazionalista nagusiek betetzen dutenaren antzeko funtzioa du Andaluziako PSOEk. Aldiz, Euskal Autonomi Erkidegoan populazioaren gehiengoa 100.000 biztanletik beherako herrietan bizi da, eta horietan, ideia kosmopolitik urrun ikusten dira. Urrun ikusten diren bezala programa argirik gabeko Madrilen sortutako alderdi frankiziak. ■


Mikel Asurmendi

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Boterea galtzen hastetik heldu da bakea

BAKEA ETA BIZIKIDETZA sustatzeko hainbat ekimen izan dira Euskal Herrian, eta are gehiago eratu beharko dira bi helburu horiek lortu nahi izanez gero. Premisa bat: bakeak ez du bizikidetzat bermatzen, bakea gatazken ondoren dator eta garaileak ezarria izaten da. Bizikidetzat eraikiko bada, gatazka sortutako zauriak sendatu behar dira. Biktimekiko “erreparazioa” lantzea da bizikidetzat sustatzeko lehen zeregina, eta berau ongi egiteko, “egia agertzea” eta “justizia egitea” funtsezkoak. Alta, egia eta justizia ideologiaren arabera eman eta ezartzen dira komunzki. Zeregin horretan, besteak beste, gatazkaren kontakizunak munta handia dauka.

“Bake prozesua” artean finkatu gabe, biktima taldeak ez dira bi bandotan kokatuta soilik. Hau da, ez daude ordena ezarriaren aldeko eta matxinoen aldeko biktimak. Ez dago *Dignidad y Justicia*, *Covite* edo *Manos limpias* alde batean eta ETaren aldea bestean: errealitatea ez da zuria eta beltza. Haatik, zauriak sendatze bidean, ideologia eta interes politikoak berealdiko aldagaiak dira garai berrira iritsi ahal izateko. Kontakizuna bakoitzaren interes politikoen arabera eraikitzen da. Bizikidetzat lortuko bada, biktimek eta talde politikoei euren ideologiak elkar alderatu beharko dituzte.

Bizikidetzat gauzatzeko jendarteko muturren jarrerek elkarrengana hurbildu behar dute, zubiak eraiki behar dira. Zeregin horretan ari dira alderdiak eta eragileak. Jendartea engaiatzea zailagoa da, ordea. Jendartea boterearen –alderdien eta instituzioen dinamiken

barne– menpe baitago, baita jendarteak berak iraganean sortutako dinamiken menpe ere, dinamika azkarregiak zein motelegiak direlarik.

Dinamikak dinamika, ezker abertzalearen dinamika urtarrilean hasten da presoan aldeko manifestazioarekin eta Aberri Egunean goia jotzen du. Anartean sistema politikoaren dinamika dago, aurten goia joko duena: Iparraldean departamendurako bozak dira izan berri dira. Hegoaldean herri eta foru hauteskundeak

maiatzean, eta azaroan Espainiako Kongresurakoak.

Bizkitartean, bake giro eskasa atzeman dut neronek. Bai, baina “zer proposatzen duzu bake giroa sendoago ekarriko duen bizikidetzat sustatzeko?”, galde-tu dit barne aingeruak. Ezer gutxi, gogoetatxo xume hau ez beste:


Gatazka armatuak ez du jendarte bizikideagoa izaten lagundu, bistan da. Aitzitik, areriotasunak etsaituago bihurtu gaitu. Berbarako, hainbat biktima herri

honen burujabetasunaren aldekoak dira, eta ez daude nik aipatutako alde batean ez bestean. Hartara, lehenik eta behin, helburu politiko komunak ditugun arteko bizikidetzat sendoago behar dugu, hurkoaren nahia eta ahalmena errespetatuz betiere. Multzo hori sendoago bilakatzeak ekarriko du bi muturrekoek “amore” ematea, baita boterean daudenen interesak kolokan jartzea ere. Hots, etsaiak galtzen hasten direnean hasten dira haren menekoen eskubideak onartzen. Boterea galtzen hastetik heldu da bakea, nolabait. ■

Gatazka armatuak ez du jendarte bizikideagoa izaten lagundu, bistan da. Aitzitik, areriotasunak etsaituago bihurtu gaitu. Berbarako, hainbat biktima herri honen burujabetasunaren aldekoak dira, eta ez daude nik aipatutako alde batean ez bestean

Euskaltzaindia
**XXXII. Sarako
Idazleen
Biltzarrean**

2015eko apirilaren 6an



BAHNAR DEITU SALBAIAK
Dourisbourek idatzia,
Jean Elizalde “Zerbitzari”k itzulia
Paratzailea: HENRI DUHAU



**MONGONGO DASSANZAREN
ALBAITARITZAKO
IDAZLANAK (1692-1892)**
Paratzailea: TXOMIN PEILLEN



**APROCHEE TEXTOLOGIQUE
ET COMPARATIVE DU CONTE
TRADITIONNEL BASQUE
DANS LES VERSIONS
BILINGUES DE 1873 À 1942**
Egilea: NATALIA ZAÏKA

Iván Giménez

KAZETARIA ♦



Zortzi abizen espainiar

BATZUEK DIOTE haurtzaroa dela norberaren benetako aberria, baina beste batzuek Aberri Txarrak rock taldea sortu dutenez, agian ez gara horretaz hain seguru izanen. Aberri hitza potoloegia delakoan, erabilgarriagoak omen diren komunitate edo identitate kontzeptuak daude askoren ahotan. Hala ere, izen kolektiboak direnez, multzo horien barruan derrigorrez jendea sartu behar da, mundua —eta gurera ekarriz, Euskal Herria, edo are zehatzago Nafarroa— taldeka banatuz, hiritar guztiak batean edo bestean kokatuz, aldezturik mugaturiko komunitateetatik kanpo inor utzi gabe.

Modu horretan, munduaren aniztasuna eta konplexutasuna gure adimen mugatu eta eskasaren neurria egokitzen dugu, benetan garen baino bizkorragoak sinestarazteko. Esparru politikora eramanez, adimen eskasari alderdi batzuen biziraupen behar larria gehitu behar zaio. Bitxia bada ere, bere burua komunitate batean —ala bestean— kokatzen ez duenak gainerako hiritar guztiak sartzen ditu multzo jakin batean, denak sailkatuz —bera izan ezik, noski—, Genesiaren Adam orojakilearen papera egiten: gizaki bakarra izanik, animalia bakoitzari izena jarri zion, baina bera salbu, zoologikotik kanpo.

Nafarroako alderdi politiko batek transbertsal hitza erabiltzen duenero, edo bi komunitateen arteko zubi-lana egiteko bere burua eskaintzen badu, interes maltzurra agerian uzten du: bi komunitateen existentziaren beharra; eta elkarren arteko gatazka badago,

are beharrezkoagoa izanen da haren —ustezko— asmo oneko zubi-lana.

Alabaina, zubia behar dugu baldin eta bi bazterrak badaude. Bazterrak zenbat eta urrunago, zubia orduan eta premiazkoagoa. Beraz, alderdi baten biziraupen politikorako zubia izatea ezinbestekoa baldin bazaio, bazterrak beharko ditu, hau da, bi komunitateen existentzia, asmatuak balira ere. Baina ba al daude bi komunitate Nafarroan? Ni non nago, zeinena naiz? Euskaldun berri, zortzi abizen espainiar, iruindarra, emaztea erdaldun, guraso Gaztelako etorkinak, Erriberako familia politikoa. Ia nafar guztion bezala, bizitza nahasia eta askotarikoa da. Ai! Lasai. Politikari bat etorriko zait ni sailkatzera, zein komunitatean nago jakinaraziz, berari interesatzen zaion banaketa borobiltzeko.

Zorionez, Nafarroa ez da Hegoafrika —jaiotzez, beltza edo zuria zaren lekua—, edo Palestina-Israel —judua ala arabiarra— ezta Ipar Irlanda ere —katoliko ala protestante—. Jaiotzez, ez gara ezer, gure esku dago zer izan nahi dugun: erabaki politikoak direlako, eta ez etnikoak edo erlijiosoak. Kontua da bi hizkuntza dauzkagula —batzuek biak hitz egiten ditugu, beste batzuek bat besterik ez—, eta gatazka politikoaren mamia eskubide demokratikoen inguruan kokatzen da: nork aginduko dit nola edo norekin bizi, ala zein bandera jarri behar dugun gure udaletxean, beste adibide askoren artean?

Gu geu, ezer ez bagara ere. Ala agian, horregatik hain justu, ezer ez garelako. ■

JULE GOIKOETXEA



**Kattalin
Miner**

♦

KAZETARIA

Miren

HAU PELIKULA bat balitz, yankia ahal dela, etxe desjabetzeen inguruan protagonista etxetik botatzear dagoena balitz, hori gertatu aurretik, norbait azalduko litzateke salbazioa eskainiz. Izan liteke gizon aberats jator bat, izan banku zuzendari bihozbera bat... Batek daki.

Hau pelikula bat balitz, europarra ahal dela, ziurrenik, protagonista etxetik bidaliko zuten, edo zorian zegoen eta bere buruaz beste egingo zuen. Ondoren, misterioz beteriko gertakari batzuk jazoko ziren, hala nola, banketxeo zuzendariaren bihotza biguntzerainokoak edo kontzientzia birrintzerainokoak, eta amaieran berauk ere bere

buruaz beste egingo zuen —edo frantsesa bada pelikula, duen botere-gunea utzi eta bizitza altruismo basatira dedikatu—.

Baliteke Nafarroa, eta Antsoain hain zuzen, ez izatea Europa ez AEB. Baliteke, pelikulatik gutxi izatea Miren Peña Rastrollo sistemak erail izanak. Baina badu zinean inoiz gutxi gertatzen den errealitateirik. Izan ere, badu herri bat erre. Badu herri bat banketxe bat itauntzen. Badu herri bat, banketxeek ez bezala, badakiena zenbat balio duen bizitzak.

Eta badu herri bat ez dakiena ahazten, ez behintzat bizitza bat erauzten diote-nean. Gudan bego Miren. ■



Angel Erro

♦ IDAZLEA

Nola egin autokritika (jarraibide laburra)

AUTOKRITIKA EGITEA ariketa osasungarri eta komenigarria dela ukatuko duenik ez duzu inon aurkituko. Gutxi dira hain ospe ona duten ariketa mentalak. Autokritika noizbehinka egin behar da, bizitzan behin gutxienez; baina oso arriskutsua ere izan daitekeenez, hona autokritikari trebatu gabeari aurkezten dizkiogun jarraitu beharreko aholku batzuk, autokritika egin eta onik ateratzeko.

1. Autokritika izena gorabehera, ez ezazu autokritika zeure kabuz egin. Multzoan egitea komeni da. Multzoak, dela alderdia, dela taldekide zaituen edozein komunitate, zehaztuko dizu autokritika egiten noiz hasi eta, batez ere, noraino. Autokritikak nola ez, bere mugak ere badituelako. Autokritikaren bide malkarrean aurrera zeure kabuz eginez gero, autobaztertzearen eremu mortuan amai zaitezke inpentsan.

2. Taldean autokritika egiten baduzu, ziur egon zaitez taldeak aldeztu aurretik, modu gutxi gorabehera esan gabe, ezarri duen autokritikaren emaitzaren helmuga zehatzen jabe zarela.

3. Autokritika egitea hagitx erraza, ondokoari autokritika egiteko eskatzean baino ez datza.

4. Eska iezaiozu ondokoari autokritika egin dezan, berak zuri eska diezazun baino lehenago. *Far West*eko arauak indarrean daude autokritikagintzan ere, pistola zorrotik lehenago ateratzen duenak bizirauteko aukera gehiago dauzka. Hurrengoari –izan gogaide, izan etsai– autokritika egiteko eskatzen duenak mirariak bereganatzen ditu autokritika egin izanari darizkion onurak. Ez du zer ondorioztara iritsi den erakutsi beharrik, ez du zertan aldatu duen frogaturik, nagusita-

sun moraletik ari zaigu zer bide jarraitu behar dugun erakusten.

5. Autokritika egitea hagitx erraza da (bis), autokritika egiteko eskatzen dizunak, eskaerarekin bat, askotan, ia beti, argituko dizu, puntuz puntu, orain arte zer egin duzun gaizki eta zer aldatu behar duzun.

6. Autokritika aldeztu aurretik –gehienetan zutaz kanpo den indar batek– zehaztutako estrategia aldaketaren trantsiziozko fase baten iragarpena da. Autokritika egiten duenak ez du porrotik egin. Autokritika, dagokion unean –erne, hor baitago kokka!–, egitea ortodoxiatik ez ateratzeko bidea da. Zentzu horretan, errukarria, komeni edo behar denean, autokritikara makurtzeko egokiera ikus-teko usaimena ez duena.

7. Autokritika ironikoaren adibide bat. Tel Avivko museo batean harresi zati bat irudikatu dute, arte garaikide askoren kasuan bezala, gaurko errealitatearen zerbait salatzen asmoz. Lanaren izenburura hurbildu eta BERLIN irakur daiteke –nahiz eta harresi zatiak pintadurik ez izan–. Benetako autokritika besteak autokritikatzen hasten da. Hortik norbaitek haratagorik ulertu nahi badu, libre da.

8. Autokritikak –eragindako kalteagatik– barkamena eskatzen libratzen zaitu. Autokritika fenomeno proaktiboa, multidinamikoa, protopositiboa –paratu hemen beste edozein modako adjektibo– eta, batez ere, etorkizunari begirakoa da. Hain da askotarikoa autokritikaren onuren zerrenda barkamenarena ere auresuposatzen baitu. “Ez dut partidurako nahikoa entrenatu. Autokritikoa izan behar dut –hemen hobesten da zera gehitzea– neure buruarekin” esaten duenak, esaterako, ez die zaleei barkamenik eskatu beharrik, ezta hurrengoan gehiago zertan entrenatu. ■



Antton Olariaga

XV. MENDEKO ERESIAREN GAURKOTASUNA

Milia Lasturkoaren itzala

Erdi Aro garaiko jauntxoek munduan, baldintza bitxietan hilik suertatzen zenaren oroitzaz eta omenez eresiak ontzeko ohitura zegoen, gehienetan emakumeen ahotsez, izan ahizpak, kasu honetan bezala, izan arrebak, izan ere sendiek horretarako ordaintzen zituzten emazteak. Herriz herri ibiltzen ziren eta plainiderak bertsotan orraztatzea zuten bizi-bidea. Milia Lasturren ahizparen izenaz, nehor ez da gogoratzen. Guztiak bai, aldiz, gertakariaz eta gertakariaren zergatiaz.

| ITXARO BORDA |

Irudia: Axi

NEGARRA BEGIAN eta kiratsa ahoan, Miliaren ahizpa bertsotan hasi zen. Euria ari zuen jaits ahala Lasturko dorre etxeko hegatsa kolpekatuz. Ezkaratz ilun eta hezean bildu herritarrek, amets gaiztoa ote zen galdezka, lehen aldiz aditu zituzten, haragian behera, izu hormatua eragin zien eresia:

Zer ote da andra erdiaren saria?
Sagar erre eta ardao gorria.
Alabaina kontrarioa da Milia:
Azpian lur hotza, gainean harria.

Miliaren gurasoak amilduak ziren. Alabaren gorputza aitzinean zeukaten hobian zetzan. Jakin zenaren arabera, dolore minetan erditzean eman zuen azken hatsa eta ezkondu bezain laster Arrasateko Oro familiako Peru Gartziak bere emaztea gaizki tratatzen zuen: kolpeak eta irainak bihurtu ziren Milia Lastur gaztearen eguneroko ogi idorregiak.

**Emakumeen mendeetako
paimenaren oroitzaz da:
gaurkotasun handiko kanta
delako ikaratzen gaitu oraindik
Milia Lasturkoaren eresiak**

Haur baten sortzea ospatu ordez Lasturko gotorlekuan heriotzaren hegala hedatzen zihoan. Zaldi zainartek lauhazkatu orgetan ekarri zen Arrasatetik Lasturrera Miliaren gorputza. Zeharkatu zituzten herri guztietan, dendetako oihalak eta kopetak apaldu ziren, Arrasaten gertatua ezaguna baitzen. Miliaren ahizpak sagar erre eta ardao gorria aipatzen

zituen, lur hotza, gainean harria, egoeraren zorigaitzaren astuna azpimarratzeko.

Milia Lasturren aitak kabala franko erail zituen ehorzketa oparoak antolatzeke eta emakume zenduaren amak aberaski hornitu zuen kutxa: gurasoentzat, alabaren zentzea, Miliaren ahizpak bertsotan jarri zuen jasan ezinezko makurra zen. Peru Gartzia eta Milia Lastur ez ziren antza amodioz ezkondu, bi etxeen aberastasunak emendatze aldera baizik.


Debatik Arrasatera zuzendu zen Milia Lasturren ahizpa, Peru Gartzia alarguna gaztaroan maite zuen Marina Arrazolako anderearekin ezkontzekoa zela jakin zuenean. Haserre gorrian. Gizonari doluak ez zion asko iraun. Miliaren ehorzketan eskaini bertsoren oihartzunak muina larrutzen zion Izarraitzen behera Azkoitira bidean Arrasate lehian.

Peru Gartziaren arreba aurkitu zuen erantzun emaile Arrasate-Mondragoneko jaunaren egoitzan. Bertsolari bi zeuden parez parean. Biek bipil eta zorrotz zuten mihia:

Arren ene andra Milia Lasturko,
Peru Gartziak egin deusku laburto:
Egin dau andra, Marina Arrazolako.
Ezkon bekio, bere ideia dauko.

Peru Gartziaren ohorea salbatzea zuen arrebak helburu. Hitzez, lortu zuela aitortzekoa dugu. Anaiak ez zeukan errurik Milia Lasturkoren handinahikeria indartsua baldin bazen. Peru Gartzia gizon abila zen txikia izan arren, aberatsa, bisitorea:

Ez dauko Peru Gartziak beharrik
Hain gauz handiak apukadua gatik,
Zeruetako mandatua izanik,
Andrariok hala kunpli jasorik.



Gizon txiki sotil baten andra zan,
Ate arte zabalean ohi zan,
Giltza porra handien jabe zan,
Ondra handi asko kunplitu jakan.

Ohikoan guda-ekintzak goستن zituzten eresiek. Milia Lasturren ahizpak gizon-emazteen arteko harremanen bortitza zuen bertso ahantzezinetan zizelkatzen. Gaizki trataturiko Gipuzkoako beste hiru emakumeen destino garratzaren lekukotasuna ematen zuen gainera eresiareen bukaeran, izenak eta lekuak zerrendatuz:

Mondragoeri hartu deusatz gorroto,
Giputz andraok hartu ditu gaxtoto:
Iturriotz kalean andra Maria Baldako,
Arte Kanean andra Otsanda Gabiolako,
Errebalean andra Milia Lasturko.

Jatorriz Arrasatekoa zen Esteban Garibai (1533-1599) eruditareen memorietan aurkitu zen Milia Lasturko eresiareen testua, hogeita hamazazpi koplatan Miliaren ahizpak eta Peru Gartziairen arrebak harilkatua. Koldo Mitxelenak euskarazko idazki arkai-koetan sartu zuen eta Benito Lertxundik



Joaquim Desprezen *Mille Regrets* ahaideaz lagundurik eresia xuxurlatu eta grabatu belaunaldi berrietako entzuleen belarrietara destiltatzeko. Buruan daramagu eresiaren zilarra.

Zerurean jausi da habea,
Jo dau Lasturko torre gorea,
Eroan ditu hango jauna eta andrea,
Bata lehen, gero bestea.
Bidaldu dogu zeruetara karteak:
Arren diguela gure andrea.

Udaberri zilarrenen distiraz gozatzeko asmoz, behin Lastur herrira zuzendu nintzen. Mendekoste goiza zen. Gereziak lore ziren Gaztelugatxe eta Eako bazterretan. Bizkaitik, kostako bidetik, itzultzean aspaldikoa nuen Deba eta Itziarren gora, Lasturreko eromenean galtzeko desioa. Egia erran, idazle eta eresia zaharren miresle gisa, behiala Lakarri-Aran, Bosmendieta eta Andoseko ibarrean zehar Bereterretxe gaixoaren lasterrak errepikatu nituen bezala, Lastur idealizatzen nuen eta pentsatzen ere, agian, Miliaren gurutzatzea herri txiki hartako xendra buztintsuetan.

Ospe handiko herria da Lastur eta ez bakarrik Milia Lasturkoren bertsioengatik. San Nikolasetan bereziki, eta asteburu oroz udaran, zezen-jokoak antolatzen dira elizak, jate-txeak, tabernak eta aterpetxeak moldatu plaza txoan. Azken urteotan betizu arrazako abereak agertzen dituzte bertako abeltzainek. Uztapide bertsolariak eta Sakabi trikitilariak alegeratzen zituzketen jende anitz biltzen zituzten baserriarren ohiturazko jolasak. Herriko tabernan sartzean, kafea eskatzearen aiduru nengoela, murruan dilingotu zuri-beltezko bi izarren argazkiek garai heroikoen lekukotasuna ukigarria zitzaidan. Atzeko gelatik, berehala, irria ezpainenetan, atera zen

Oro familiako Peru Gartzia bere emaztea gaizki tratatzen zuen: kolpeak eta irainak bihurtu ziren Milia Lastur gaztearen eguneroko ogi

Bixente Zulaika, Joseba ikerlariaren anaia. Gogotik gidatuko ninduen Lasturreko labirintoan.

Burdinolak aipatu zizkidan, herri sarreran dagoen errotari buruzko xehetasunak eman, arto irina eskutan hartu nuen denboraren isuria irudikatuz eta birla-tegitik ezker-paretara nagitu nintzen, Izarraitz mendialdeen berdetasunak liluratua. Aska itsu eta lainotsuan larrabeixak alha begiztatu nituen eta San Nikolas elizako zeinuak begiak ebatsi zizkidan: mihiz gora zegoen, mutu. Lastur isila zen. Bixentek, bukatzeko, bere harri bilketa ikusgarria erakutsi zidan, bideak seinalatuz: Mutrikura heltzen ahal nintzen eskuinera bihurtuz, eta Azpeitira bidea ezker jarraituz gero.

Munduaren bihotzean nengoen. Miliaren aitamen zoritxarra eskura neukan Bixentek, belardi hegian, hausnar bakartian abandonatu ninduenen:

Lasturrera behar dozu, Milia.
Aita jaunak eresten dau elia,
Ama andreak apaintetan hobia.
Hara behar dozu, Milia.

Jausi da zerurean harria,
Aurkitu dau Lasturren torre barria,
Edegi dio almeneari erdia.

XV. mendeko eresia berriz entzuten da hondar hamarkada hauetan. Luzaz sumatu ezina zen euskal jendartearen baitako biolentzia, batez ere haurren eta emazteengana, dagoeneko onartzen, aztertzen eta salatzen delako agian erabiltzen dira Lasturko Miliaren ahizparen auhenak. Emakumearen mendeetako pairamenaren oroitzak nolabait minaren aurka eragiten ahal duelakoaren jakile dabilta gure artean. Gaurkotasan handiko kanta delako ikaratzen gaitu oraindik ere.

Ez dakit zergatik baina, betidanik, iruditu zait Lasturreko eresia film baten biltzeko oinarri ezinbestekoa izan zitekeela. Guztia dauka: tragedia, traditza, ahizpen arteko elkartasuna, klase borrokaren aztarna, epikotasun harritua.

Eta hizkuntza baten edertasun trinkoa.
Lasturrera behar dozu... Milia. ■

Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

mugarik ez

Mugak sortzen dituen gastuak **gure gain** **hartu ditugu**

ARGIA n lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

ARGIA asteen behin jasotzeko aukera:
hilean 12 euro baino ez*

ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:
hilean 7 euro baino gutxiago **

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:
hilean 4 euro baino gutxiago ***

*ARGIA astero: 145 euro urtean.
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

** ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

*** ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

© 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

 **argia**

Itzulerarik ez, itzulpenak nahi adina

Hiru urte izan dira. Gutxi, tarte horretan egin dutenarekin konparatuz: martxan jarri zenetik *Elearazi* bloga hazten joan da, itzulpengintzatik abiatuta euskal literaturari buruzko erreferentziazko gune bihurtzeraino. Orain, agur esan du Garazi Arrularen (Tafalla, 1987) eta Danele Sarriugarteren (Elgoibar, 1989) proiektuak. Zergatiez galdezka idatzi diegu.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“USTE DUGU ekarpen polita egin diogula literaturaren eta itzulpenaren arteko amodio-gorroto harremanari. Guztiak omen du amaiera bat, ordea, eta urteurrenarekin batera iritsi da *Elearazi*rena. Erdi lotsagabe erdiitsu ekin genion, ur handitan sartzen ari ote ginen erreparatu gabe, baina esanen genuke ez garela hain gaizki ere atera putzu lokaztu horretatik. Lokatzez blai, nahi bada”. Martxoaren 11ko data dauka blogean argitaratutako azken testuak. 264 post eta 80 autore baino gehiago blogera ekarri ondoren; hamalau kolaboratzailearen ekarpenak eta zenbatzeko zaila den iruzkin kopurua jaso ondoren; eta, ororen buru, literaturzaleentzat bisitatu beharreko txoko bihurtzea lortu ondoren, zikloa amaitu dela erabaki dute. Zergatik?

Arrula: “Proiektuak ixten ere jakin behar da eta, ahal dela, gainbeheran hasi aurretik”. Sarriugarte: “Nik behintzat nabaritzen nuen, eta uste dut hor bat gatozela Garazi eta biok, gure bizitzak eta jardunak asko aldatu direla hiru urteotan”. Ekainera arte jarrai zezaketela gaineratu du, baina egitasmoa mugara iritsia zela: “Helburu batzuk lortuta, gehienbat erdietsitako mailari eusteko ahalegina bilakatuko zen”.

Erabakia hartuta zegoen duela hilabete batzuetatik eta otsailaren 11n izan zuten horren berri blogean iruzkinen bat utzi zutenek, euren postontzietara igorritako mezu baten bidez. Hondarreko asteak bereziki emankorrak izan dira, egun bakoitzeko artikulua bana, azken traka.

Literatur itzulpenaren bide zenbaezinak

Hutsunea ikusita ekin zioten: itzultzailearen lanak ez du sarri merezitako errekonozimena

durik jasotzen, ez hemen, ez zakurrak ortozik ibiltzeko mania txar hori duten beste lekuetan ere. Eta ez zegoen erreferentziazko blogik haien ikuspegia jasoko zuenik –*Elearazi* martxan jarri eta hilabete gutxira agertu zen *31 Eskutik* EIZIEren ekimenez, egunero txinpartaka jarraitzen duen blog kolektiboa; bien eragina sumatu da euskal literaturaren ekosisteman—.

“Itzulpenak geroz eta garrantzia eta ikusgarritasun handiagoa du, itzultzeko baliabideak hobeak dira. Horretaz jabetzen zara eskarmen-tu handiagoa duen norbaitekin mintzatzen zarenean”, dio Arrulak. Halere, Sarriugartek uste du badirela oraindik “gezurtatu beharreko aurreiritzi asko”.

Itzultzaileek itzultzaileentzat egin dako bloga beraz? Ezta pentsatu ere: Arrulak esplikatu duenez, diziplina ardatza izan da, baina batez ere “bidea”, horri buruzko hausnarketekin eta publikatutako itzulpenekin modu orokorragoan literaturari buruz jardun baitute.

Itzulpengintzari eta literaturari buruzko eztabaida publikoa sustatu du blogak hiru urteotan

Eztabaida publikoaren premia

“Eztabaida xaxatu beharra” zegoela dio Sarriugartek, “edo zehatzago esanda, eztabaida presenteago, publikoago egiteko beharra”. Bat dator Arrula: “Mugatua da oraindik ere eztabaida publikoa, literatur txokotan edo jardunaldietan edo sukaldean geratzen da bereziki”. Eta ez giro onenean, Sarriugartek aipatu duen zerbaiti erreparatuz gero: “Herrak eta erresuminak igarri ditut tabernetan, plaza publikotik kanpo, baina plaza publikoan geratzen diren gauza asko esplikatzeko balio dutenak. Alde horretatik, uste dut asko hobetu daitekeela literaturari buruzko kritika eta eztabaidari dagokionean, pertsonalismoak



Garazi Arrulak eta Danele Sarriugartek hiru urtez elikatu duten egitasmoa amaitutzat jo dute. Elearazi.eus helbidean irakur daiteke urteotan egindako lana.

eta ego minduak bazter utzita, normalizazio-tik eta komunitate txiki eta zapalduaren oina-zeetatik apur bat askatzen saiatuta”.

Joera horri buelta eman nahian aritu dira, hain zuzen, blogeko “Itzultzaileak mintzo” eta “Autoreak plazara” sailen bidez. Lehenbi-zikoak elkarrizketa sorta aparta utzi du onda-re gisa www.elearazi.eus-en. Diskretuenak ere hizketan jartzea lortu dute eta balio izan du irakurleek jakin dezaten bukatuta jasotzen dituzten itzulitako obra horien atzean nolako lanketa dagoen. “Autoreak plazara” atalarekin aldiz, munduko idazleak euskarara ekarri dituzte, bakoitzari dagokion aurkezpena eskainiz. Batzuk ezagunagoak baina orain arte itzuli gabeak –saileko azkena Joyce Carol Oates izan da, adibidez–, beste askok irakur-zaleari aukera eman diote egile berriak desku-

britzeko. “Aurrera egin ahala eta biok ere ikasten eta bestelako gauzak egiten joan ahala, zehar-lerro gehiago ere txertatu ditugu, baina ardatz nagusia itzulpena izan da beti”, azaldu du Sarriugartek.

Plaza berrietan aritzera

Bloga fini, hura gidatu duten bi lagunek lan berriak dituzte esku artean. Duela gutxi Susa-ren eskutik hiru liburu berri argitaratu dituen Munduko Poesia Kaieren bildumako ale bat prestatzen ari da Sarriugarte eta irailera arte *Erractus* ikuskizunean ikusi ahalko duzue Kattalin Miner eta Jule Goikoetxearekin batera. Arrulak ere *Elearaz*in hartutako ipar-rari segiko dio: “Itzulpenaren eta literatura-ren bidean segituko dugu, erabat nazkatzen ez bagara, behintzat”. ■

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Literatura

Prime-time
John Andueza
Elkar, 2014



Bizitzaren biktimak

HELDUEN LITERATURAN debutatu berri du John Anduezak (Oregon, AEB, 1966) *Prime-Time* eleberrarekin. Idazle lanez gainera, zinemagintzan, telebistako aurkezle, kazetari, zuzendari eta aktore lanean ere aritu da. Esan daiteke beraz, eskuartearen dugun intrigazko eleberririk hau, bere ibilbide hibridoaren emaitza dela.

Intrigaren tratamenduak eleberraren eraiketan garrantzi handia hartzen du. Bi maila desberdinetan landua izateagatik trama bikoitza sortzen dela iruditu zait. Alde batetik, krimen kateatuen kasua argitu behar duen tramaren intriga, eleberririk poliziakoaren funtsa, alegia. Eta bestetik, bi pertsonaien istorioaren gaineko tramak sortutakoa, soziologikoagoa, eleberririk beltzari hurbiltzen zaiona. Hau da, pertsonaiek gaur bizi duten tragediaren tramaren intriga. Trama biek *Prime-Time*an, alegia, audientzia gehien biltzen den momentuan, bat egingo dute.

Bala eta Klemente Ertzaintzatik kanporatu zituzten, Irrintzi Operazioan hanka-sartze handia egiteagatik. Kolpe itzela izateaz gainera, bien arteko erlazioan arrasto traumatiko bat utzi duela konturatzen gara hastapenetik. Gaur, halaber, detektibe pribatu gisa lan egiten dute, San Mames mitikoaren itzalpean.

Dei batek Bala eta Klementeren bizitzak astinduko ditu. Poliziaren ikertzaile ofizialek suizidiotzat hartu zuten kasua, Getxoko haitzetan hilik agertu zen komunikabideen munduko presentzia garrantzitsu batena, berriz ikertzeko eskatuko diete. Balak eta Klementek beren irudia garbitu ahal izateko erronka bezala jasoko dute dei hori. Behingoz, ofizioarekiko zorra ordaintzeko aukera ezin hobe heldu zaie. Gauzak konplikatuak joan dira, heriotzak gehituz doazen heinean.

Kasuaren tramak aurrera egin ahala, bi pertsonaien arteko erlazioaren istorioak denboran atzera egingo du. Iragana agerian geratzen den neurrian, Bala eta Klemente geroz eta biluztuago ikusiko ditugu. Bizitzaren beste bi biktima dira.

Sorpresaren elementua eleberririk osoan zehar dago presente. Erruduna salatu dezaketen elementuak ez daude derrigor ezkutaturik, badira ebidentzia argiak. Baina errudunaren susmoa izanda ere, Anduezak istorioa bihurritzeko gaitasun izugarria azaldu du, ustekabetasuna eleberraren ardatz bilakatzeraino. ■

Saioa
Ruiz Gonzalez

Kamisetak lehiaketa

www.kafeantzokia.com

20

URTEA

Kafe Antzokiaren
20. urteurrenako
kamiseta lehiaketa


Baldintzak eta informazio osoa
www.kafeantzokia.com

www.kafeantzokia.com

Bilbo Hiria irratia

www.bilbohira.eus

BI-96.0-FM

*Anai arrebak*

Anai arrebak

Bonberenea Ekintzak, 2015

Dantza, plazatan ez, areto eta garitoetan

BEHIN BAINO GEHIAGOTAN esan izan da Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan ez dela dantzan egiten, eta are eta gutxiago gazteek. Salbuespena txanpinoiak bezala ugaltzen diren ska taldeek osatzen dute, baina hortik kanpo ezer ere ez. Horri buelta eman nahian, eta dantza plazatatik areto eta txoko guztietara eramateko asmoz, 2010ean Anai Arrebak taldea sortu zuten, Euskal Herriko panoraman ezuste atsegina. Gainera, erabat harritu gintuen proiektuaren sustatzaileak nortzuk ziren jakiteak. Honako hauek dira beraien curriculumean agertzen diren aurrekariak: metalari buelta eta erdi eman zion Jousilouli talde irudimentsua; doinu gogorrenak muturreraino eramane zituen Naizroxa; eta hardcore eta punk-rocka batu zituen Trigger Travis, besteak beste.

Taldeak oso helburu argia finkatu zuen hasieratik: mundu guztia dantzan jarri eta disco musikari merezi duen balioa eta lekua ematea. Taldearen maketa confeti eta ostia txarrez betetako eztanda izan zen. New-wave, post-punk eta disco leherketa indartsua, vintagea eta aldi berean berritzailea. Rockeroak, gerorik, etorkizunik ez balego bezala, urgentziatzko disco musika egiten.

Horren ostean egindako kontzertu ugariak balio izan zuten mozkor, abstemio, politoxikomano, punky, popero, metalero zein modernoek gerriak mugiarazteko eta, aspaldiko partez, askoren barre-nak askatzen laguntzeko. Nolabait, zuri-beltzezko garai hauei kolorea eman zieten eta berezkoa duten indarra dantzara bideratu zuten. 2012an lehen disko luzea kaleratu zuten, eta maketan batutako estiloez gain, soul, funk, pop eta erritmo latinoak ere gehitu zizkieten proposamenari.

Ohikoa duten moduan Portugal Txiki estudioan isilean lanean aritu ostean, taldearen bigarren lan luzea aurkezteari ekin berri diote orain. Taldeak propio duen energia sutsu hori baretzen ahalegindu dira eta barru-barruan daramaten popa azaleratzen, beti ere entzulea erritmo eta dantzaren eremuan sorgindu nahian.

Abesti bakoitzak detaile ugari ditu, atzeko lan ugari: instrumentazio eta konponketa lan izugarria




dago. Elektronika, 80ko hamarkadako zigilua duten makinatxoekin eginga, gero eta presenteago dago laukotearen eskaintzan. Funkyaren eremuan ere gero eta erosoago mugitzen dira; perkusioaz ederto baliatzen dira; eta discoarenganako hurbilketak pasarte propioa merezi du: discoa beraientzat jaio zela askok uste badute ere, discoa aldatzeko eta bizi-berritzeko etorri direla uste dut.

Popa bai, ahots eta melodia itsaskorretan; musika beltza, dantzarazten gaituen alfonbran; elektronika, erritmo eta bultzada gehigarri horretan; rocka, ezkutatu ezin den DNAn; eta taldekideen eta gauaren misterioa, soinu banda aproposak diren introetan.

Hit-ak dira kantu horietako zenbait, konturatu orduko harrapatu eta lelotuko zaituztenak. Gainera, ondo baino hobeto dakite melodia borobilei esker errazago aterako gaituztela pistara eta blaituko dizkigutela mezu garratz eta pozointsuek, beraien habitatean, gauean, jaio eta hazitakoak. ■

Iker Barandiaran

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Burdina lantzen zen lantegia (pl). Ugazaba, nagusia. 2. **Argazkian**. Rubidioaren sinboloa. 3. Letra izena. Iskanbila. 4. Antxumea. Hegazti mota, parkeetan sarritan ikusten duguna. 5. ... egin, erabat ase. Tanta guztiz xeheetan erortzen den euri. Geun, gandu. 6. Norantz. Eredu, jarraibide. 7. Puztu, handitu. Kafea. 8. Leize, amildegi. Jarduera baterako behar den tresneria (pl).

Goitik behera:

1. Olibak ematen dituen zuhaitz. 2. Hizkuntza bateko hiztegi edo hitzen multzo. 3. Berehala (alderantziz). Beisboleko korrikaldia. 4. Errepikatuz, txori mota. Bizitasunik gabe. 5. Beldurti, ikarati. 6. Gogo bizi. Amerizioaren sinboloa. 7. Bokak errepikatuta. Astia, denbora librea. 8. Zurrutada. 9. Erraz erabil daitekeena. 10. Abaraska. Gar. 11. Azeri. 12. Gogobetea. 13. Apal, xume. 14. Tema. 15. Egokiak.

Logika jokoa



Lau lagunek iazko Behobia-Donostian hartu zuten parte.

Laurak bata bestearen ondoren heldu ziren helmugara.

Badakigu Mikel Josuneren atze-atzean heldu zela. Jon, berriz, Aiora eta Mikelen artean heldu zen helmugara.

Zein ordenatan heldu ziren helmugara?

Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Abesti	K A N T U
Nekagarri	
Diru-zigorra	
Musika	
Jakina	
Irmo, fermu	
Frikun, bihurri	
Erlijio-irudi	
Lapur, litxarrero	
Normal, eguneroko	
Hoztasunez	
Alaiki	
Bonu, txartel	K U P O I

Sudokuak

Erraza

2	8			3				9
	3	7			6		8	
					2	7	3	5
				3			2	1
6	4	3				8	5	7
1	7				5			
8	2	6	9					
	5		7			9	1	
7				5			4	8

Zaila

8	6		9			5		
			1	7				
9		4	8		5			
							8	4
		3				9		
6	1							
			3	9	1		6	
			1	7				
		9		8		2	7	

Soluzioak

Jon, Alora,
Josune, Mikel,

LOGIKA JOKOA:

KUPOI
POZIK
HOZKI
OHIKO
OHONO
IKONO
FINKO
NOSKI
SONU
ISUNA
ASTUN
KANTU

ANAGRAMAK:

7	1	6	9	5	3	2	4	8
3	5	4	7	2	8	6	1	9
8	2	6	9	4	1	5	7	3
1	7	2	8	6	5	3	9	4
6	4	3	2	1	6	9	8	5
5	6	8	3	7	4	6	2	1
9	6	1	4	8	2	7	3	5
4	3	7	5	6	1	8	2	9
2	8	5	1	3	7	4	6	9

Erraza

1	5	9	4	6	8	3	2	7
4	3	6	2	1	7	8	5	9
2	8	7	3	5	9	1	4	6
6	1	8	7	9	4	2	3	5
7	4	3	5	8	2	9	6	1
5	9	2	6	3	1	7	8	4
9	7	4	8	2	5	6	1	3
3	2	5	1	7	6	4	9	8
8	6	1	9	4	3	5	7	2

aitia

12. Asca. 13. Uml. 14. Seta. 15. Onak.
Bera. 8. Zurrut. 9. Erosoa. 10. Abar. 11. Luki.
RBI. 4. Kuz. 5. Kaka. 6. Joran. 7. Aa.
Goitik behera: 1. Olibondo. 2. Lexiko. 3. Akat.
Materiak.
6. Norat. Erakusmen. 7. Butat. 8. Olin.
3. Ixa. Arzaoa. 4. Brik. 5. Ok. 6. Lanbro. 7. Lauso.
Ezker-eskuin: 1. Olak. 2. Lekuoa. 3. Rb.

“Luke Skywalker sindromea”: pertsonaiak aktorea irentsi du

OSCAR WILDEK esaten zuen, “bizitzan bi momentu tragiko daude: lehenengoa, nahi duzuna lortu ezin duzunean. Bigarrena, lortzen duzunean”. Oso erraza dela erosotasun horretara ohitzea, baina ondoren datorrena eramaten jakin behar dela, alegia.

Badaude aktore baten bizitza markatzen duten paperak, baina baita betiko sailkatzen dituztenak ere. Batzuk, izan zirenaren itzala besterik ez dira bihurtzen; eta garai batean arrakasta ziurtatu zien lan mamitsu hori lasta baino ez da bihurtu gaur egun. Kasu nabarmen bat, izenbururako aukeraturiko Luke Skywalker (Mark Hamill) izan liteke. *Star Wars* filmaren arrakastaren ostean, mundu guztiak pertsonaia bezala identifikatzen zuela ohartu zen, ez aktore moduan. Sailkapen hori gainetik kentzeko ahalegina egin zuen hainbat filmekin. Ezinezkoa. Gaur egun, film, bideo-joko eta telesailen bikoizketa lanetan aritzen da.

Ez da iraganeko kontua soilik. Orain hilabete batzuk *Birdman* filma estreinatu zen zinema aretoetan. Bere garaian super-heroi papera egin ondoren, bere burua teatroan berrasmatu nahian ari den aktore baten istorioa kontatzen digu Alejandro Gonzalez Iñárrituk. Michael Keaton amerikarra dugu protagonista, “kasualitatez” duela urte batzuk *Batmani* esker ezagun egin eta geroztik apenas oihartzunik izan duen aktorea. Beraz, zalantzarik ez rol horretarako bera hautatzea oso neurtutako erabakia izan dela; eta ziurrenik bere bizitza hartu du oinarri pertsonaian murgiltzeko —ez al zaizue iruditzen susmagarria, pelikulan zehar entzuten dugun off-eko ahots grabe hori, Batmanenaren oso antzekoa izatea?—.

Posible al da pertsonaia handien etiketa gainetik kentzea? Oso konplikatu dirudi. Alde batetik, mota horretako pertsonaiek gizartean izaten duten eragina saihestezina baita; zinezalea izan ala ez, edozeinek identifika baititzake. Ikono bihurtzen dira.

Egin dezagun jolas bat hori frogatzeko: saiatu beheko hutsuneak betetzen, ziur nago guzti-guztiak asmatuko dituzuela eta:

- Harrison Ford: _____
- Michael J. Fox: _____
- Anthony Hopkins: _____
- Audrey Tautou: _____
- Julie Andrews: _____
- Renée Zellweger: _____ *

Baina, nahiz eta etiketa hori ez gairitu, badira aktore batzuk, lan bikain gehiago egiten jarraitu eta “pisu” hori ezin hobe eramaten jakin izan dutenak; Jeff Bridges-Lebowski, Frances McDormand-Marge Gunderson, Al Pacino-Tony Montana eta Robert De Niro-Travis Bickle, esaterako. Pertsonaia horiek beti-



Mark Hamill aktorea ez da bereziki ezaguna. Berak ez daukan fama bere pertsonaietako batek, Luke Skywalkerrek eraman zuen.

ko geratuko dira itsatsita zinemaren historian, eta beti identifikatuko ditugu aktore horiekin. Baina geroztik lan ugari egin dituzte eta hasieran lasta zamatsua zirudiena, euskarri bihurtzen asmatu dute.

Telebista ere gertatzen dira horrelakoak. Kasu honetan “*Friends* sindromea” esaten zaio. Mundu guztiak ezagutzen du telesail hori, baita Ross, Rachel Monica, Chandler, Joey eta Phoebe pertsonaiak ere. Baina gai al zarete Internetera jo gabe aktoreen izenak esateko? Geroztik beraien karrera nolakoa izan den erakutsi dezake horrek. Pantaila txikian beste kasu ugari ere aurki ditzakegu, baina nabarmena Jaleel White (Steve Urkell) izan liteke.

Telebista eta zinemaren ikono bihurtu dira guztiak, baina bi bide zeuzkan errepide kurbatsu horretan norabide desberdinak aukeratu dituzte. Batzuk ezkerreko bidea hartu eta helmugara iritsiko dira. Besteak aldiz, okerreko norantza hartuta, amildegitik behera erori eta momentu hartako irudia baino ez dugu izango gogoan, Azken finean, beraien arrakastaren biktima bihurtu dira, zorte txarra, espero ez zuten ospe hori gaindiezina zelako ala besterik gabe, pertsonaiak aktorea irentsi duelako. ■

Gaizka Izagirre

* Bai, asmatu duzue, erantzunak hauek dira: Indiana Jones-Han Solo, Marty McFly, Hannibal Lecter, Amelie, Mary Poppins, Bridget Jones.

Ilargia eta energia

UDABERRIA etortzearekin batera Ilargia protagonista bihurtu zen, egun batzuetan bederen, geure bizitzetan. Eguzki eklipsea ez da egunero gertatzen, eta eklipsearekin batera ilargia Lurretik oso hurbil baldin badago gertaera meteorologiko garrantzitsuak izaten dira. Ordu batzuetako iluntasunari itsas mareen bizitasuna gehitzen zaionez, gertaera horiek geure bizimoduan eragiten dute.

Aurten ikuskizunari kezka bat erantsi zaio, agian Lurraren historian lehen aldiz: eguzki energiaren aldeko apustua egin duten herrialdeek eklipseak iraun bitartean euren energi produkzioa %5etik gora murriztu izana. Egia esan, itsasoko energiaren aldeko apustua eginga balego berdinduko litza-teke eguzki energiaren galera.



Martxoko eguzki eklipseak nabarmen eragin zion energi ekoizpenari zenbait tokitan.

Ilargiko helioa, lehengai preziatua

Eklipsea dela-eta protagonista izan den ilargiak badu Lurreko herrialde aberatsenek amesten duten lehengai: helioa. Bi protoi eta bi elektroi dituen elementu hori oso eskasa da gure planetan, %0,000137 baino ez, baina ez da gauza bera gertatzen ilargian. Helioa eguzkian eta izarretan sortzen da, eta eguzki-hai-zeak garraiatzen du, baina Lurreko atmosferak eta eremu magnetikoak ez diote lurreratzen uzten. Ilargian ez da halakorik gertatzen, eta hala, uste da une honetan 100.000 tonatik gora helio dagoela hango gainazalean.

Helioa erregai garbia eta ahalmen kalorifiko handikoa

da, oso aproposa zientzialariek amesten duten fusio nuklearrean erabiltzeko. Hainbat kalkuluren arabera, ilargian dagoenarekin gizakion behar energetikoak ase litezke datozen 10.000 urteetan.

Orain hobeto ulertzen dugu ilargian egoitzak instalatzeko hainbat herrialdek duten interesa. Egia da handik gas preziatua hona ekartzea ez dela erraza izango, baina nonbaitetik hasi beharra dago. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Elhuyar aldizkaria hiruhilabetekaria izango da aurrerantzean

30 urtetik gora daramatza honezkero *Elhuyar* aldizkariak geure artean. Baina luzaroan hilero esku artean izan dugun hori urtean lau aldiz baino ez da argitaratuko hemendik aurrera, krisiaren eraginez. Doakiela lerro hauetatik besarkada zintzoa *Elhuyar*-eko lantaldea osatzen duten guztiei.

ttiki.com/338204
(Euskaraz)

Zuntz argitsuak jantzietan

Shanghaiko Unibertsitateko (Txina) ikertzaile talde batek kotoiaren eta zuntz sintetikoaren antzeko zuntz argidunak sortu ditu. Ikerlariek zelula elektrokimikoak eta zinkeko nanopartikulak erabili dituzte; horien bidez, laster erraz ekoitzi ahal izango dira arropa argitsuak.

ttiki.com/338205
(Frantsesez)

Erredurak lasterrago sendatzeko bidea

Erreduren ondoriozko orbanak sendatzeak luze jotzen du gehienetan, baina ikerlari mexikar batzuek orban horiek azkarrago sendatzeko bidea aurkitu dute. Orbanaren gainean azaleko zelulak dituen zuntz biodegradagarri bat kokatuz, erdira murrizten da sendatzeko behar den denbora.

ttiki.com/338206
(Gaztelaniaz)

Azeribuztan zahar

GURE MUNDUAREN sorrerako garaiekin lotzen da azeribuztanaren landare generoa (*Equisetum*). Paleozoikoko garai Devoniarrean, duela 400 milioi urte inguru, bere senideak bizi ziren. Geroxeago, Karboniferoan, duela 300 milioi urteren bueltan, basoetako nagusiak ziren azeribuztan erraldoiak, 30 metro artekoak. Gaur erre eta erre ari garen ikatzaren, petrolioaren eta gasaren sorrera baso horietako landareetan dago. Azeribuztanaren ere bai.

Eta oraindik bizi dira haien ondorengoak, *Equisetum* genero horretakoak, alegia. *Equisetum* izena latineko *equi* (behorra) eta *seta* (zurda) hitzetatik dator. Bere formagatik buztanekin lotu izan da landare genero hau: astobuztana, mandobuztana, xagubuztana, arratoibuztana, muskerbuztana, mandabuztana, zamaribuztana, moxalbuztana, txerribuztana, zezenbuztana, behorbuztana... Buztan desberdin asko da gurearen inguruko hizkuntzetan.

“Tornularien buztana” ere deitzen diote gazteleraz. Lantegiko tornuan aritzen dena edo barrutegietako mojen etxeko tornuan dabilena, nor ote da izena eman

dion tornulari hori? Auskalo!

Izen xeblebre ugari du azeribuztanak. Beti bizi izan gara bere aldamenean, nor garenez gero. Behar izan dugunero hor izan da; azalean dituen silize kristalek mirariak, benetakoak, egiten baititu. Sendabelar arrunta da; kontuz erabili behar da, eta batez ere ongi identifikatuta: azeribuztan bat baino gehiago dago, eta denek ez dute, ezta gutxiago ere, eragin bera. Jaki ere bada: japoniarrentzat belar basaka estimatua da; Europa aldean udaberriko puja berri guriak zainzurien moduan jaten dira, baita arrautzetan pasatu eta frijitututa olio-ozpinarekin ere, eta zopa eta saltsetan ere topa dezakezu. Kosmetikan lepo erabiltzen da, halaber: lepo aldean, belarri izkinan, ezpainen eta beta-zalen ertzetan eta nonahi sortzen diren zimurrak leuntzeko. Itxura nagusi; itxuraz, ehunetako kolagenoari eutsiz azalari tenteago eusten dio. Beste azal batzuen leuntzaile ere badarabilgu. Espartzu



RROR-CC BY SA

bezala landare zati bat hartu eta beirazko eta metalezko piezak igurzten dira. Ederki garbitu eta leuntzen ditu brontzea, kobrea, zilarra, eztainua eta abar. “Eztainu-belarra” deitzen zaio gurean, eta gazteleraz, *limpiaplata*. Luthierrek maitea dute, zura ere gozo leuntzen omen du. ■

JAKOBA ERREKONDO



Udaberria makal

MAKAL DATOR udaberria. Askok nahi baino mantsoago; noiz belztuko dugu kopeta eta erre sudur punta? Eguzkia garesti dago aurren, eta termometroa beheko aldean txarrantxatuta, ainguratuta.

Haltza, elorri beltza, astigar bakanak, mimosa, lizar ausart batzuk eta zuhaitz ale gutxi gehiago loratu da, dagoeneko. Gero, epelaren izerdiaren bultzadizoaz denak batera leher-tu eta udaberri motza eztandaraziko dute. Denak batera, eta kolore eta usain festan elurra egingo du. Makalaren fruituak haizearen dantzara ematen direnean, elurra egingo du. Makal dator, bai, udaberria. ■

Zoaz ostrazismora... edo petalismora

KERAMIKOS MUSEUM



Aristides, Lisimakoren semea, erbestera bidaltzeko erabilitako bozka. Aristides "Zuzena" K.a. 482an bidali zuten ostrazismora, nekazarien aldeko eta itsas flotaren aurkako gatazka sozialetan parte hartzeagatik, baina hamar urteko zigorra bete baino lehen itzultzeko aukera eman zioten.

ATENAS, K.a. 510. Klistenesek ostrazismoaren legea sortu zuen, arriskutsutzat jotzen zituzten politikariak erbestertzeko, indarrean urte batzuk geroago jarri zen arren, K.a. 487an. Greziar demokrazia ahuldu zezaketen balizko intrigak eta azpi-jokoak saihesteko prebenzio neurria zen jatorriz.

Atenasko hiritarrak urtero biltzen ziren ordezkari politikoren bat hiritik egotzi behar zuten ala ez erabakitzeko. Gehiengo absolutuz onartzen bazen, kanporatuak hamar egun zeuzkan ekipajea egin eta Atenasetik alde egiteko. Hiritarra izateagatik zeuzkan eskubideak ez zituen galtzen –hiria zapaltzeko eskubidea salbu– eta hamar urteko erbestealdiaren ondoren itzultzeko aukera zeukan.

Lehen kondenatua Hiparko izan zen, eta azkena Hiperbolo, K.a. 417an. Tartean Megakles V.a, Jantipo –Periklesen aita– eta Aristides erbesterratu zituzten, besteak beste. Beraz, ostrazismoak mendea ere ez zuen bete. Izan ere, demokrazia defendatzeko xedez sortu zutena kontrako arrisku bihurtu zen. Aurkari politiko deserosoak uxatzeko edo, besterik gabe, pagaburuak topatzeko bide erraz gisa erabiltzen hasi ziren.

Praktikak ez zuen iraun, baina kontzeptua guganaino iritsi da. Hiztegiaren arabera, ostrazismo hitzak "pertso-

na desatseginak bazter uztea" esan nahi du. Hitza antzinako grekozko *ostrakon*etik dator. Idazteko erabiltzen zituzten maskor edo zeramikazko zatiak ziren ostrakak. Pitxarrak hausten zirenean, zatiak ohar eta datuak idazteko edo idazketa praktikatu ahal izateko birziklatzeko ohitura ona zuten. Eta hiritik kanporatu nahi zituztenen izenak idazteko ere ostrakak erabiltzen zituzten.

Baina kontzeptua *petalismoa* izan zitekeen berdin. Beste greziar hiri batzuetan, Peloponeson bertan nahiz penintsulatik kanpo, zuhaitzen hostoetan –grekoz *petalon*– idazten zuten epaituaren izena. Sirakusan, esaterako, olibondo hostoak erabiltzen zituzten. Bozaren euskarria ez zein hain gogorra, eta zigorra ere ez: erbestealdia bost urtekoa izan ohi zen Siziliako hiri horretan. Ostraketan idaztea zailagoa zen; ikerketa arkeologikoek frogatu dute ostraka asko esku gutxi idatzita daudela, gaur bezala, boto txartelak aurrez "inprimatuta" izaten zituztela, alegia.

Gaingan idaztea errazagoa izanagatik, hostoak gal-korrangoak dira, eta horregatik petalismoaren arrasto fisikorik ez zaigu iritsi. Eta hitzak berak ez du ostrazismoaren indarririk. Egia esan, norbait petalismoa bidaltzeak kutsu positiboa du ia. ■

Arrastoak

Bikingoak eta musulmanak eraztunaz lotuta

CHRISTER ÅHLIN



"IL-LA-LAH" (Alarentzat edo Alarengatik) idazkuna duen eraztun bat topatu zuten XIX. mendearen amaieran Suedian, bikingoen garaian merkataritza gune garrantzitsua izandako Birkan. Eta, berriki, Stockholmeko Unibertsitateko Sebastian Wärmländer biofisikariak pieza xehe aztertu du. Eraztuna oso gutxi erabili zutela ondorioztatu du, jabe gutxi edo bakarra

izan zuela. Beraz, eraztun musulmana ez zen halabeharrez iritsi Eskandinaviara. Bikingoen saga eta kronikek aipatzen dute bikingoak, Kaspiar Itsasora, Itsaso Beltzera eta haratago joan zirela, baina zaila da istorio horietan errealitatea eta fikzioa bereiztea. Wärmländerren esanetan, "eraztunak bikingoen eta islamdar munduaren arteko harremana baieztatzen du". ■

ERAKUSKETA

2015.2.21
2015.5.18



MENDIA

SAN TELMO MUSEOA

Euskal mendizaletasuna kirol, giza eta kultur ikuspegietatik.

ANTOLATZAILEAK

STM

San Telmo Museoa



Vasco de Camping



Donostia 2016
Aparatuak de San Sebastián



DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIÁN

donostiakultura.com

PATRONO PRIBATUAK



kutxa gizarte ekintza



eitb

EL DIARIO VASCO



ALTUNA Y URUA S.A.
Construcciones

ERAKUNDE BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia

ENPRESA ONGILEAK

GARA

berria

naiz:



Euzkadiren askatasuna amets, nazien kontra borrokan

Gernika Batailoia Pointe de Grave naziengandik askatu zuela 70 urte bete dira. 1945eko apirilaren 14an Kepa Ordoki komandantearen agindupean abiatu zuten oldarraldi epikoa euskal soldaduek; hiru aste geroago Berlin errenditu zen.

Testua eta argazkiak:

| HARITZ RODRIGUEZ |

SOULAC-SUR-MER eta Le Verdon-sur-Mer herriak Medoc ardogintza eskualdeko Landetan daude kokaturik. Turismo gune garrantzitsua da Soulac, nagusiki udaran. Izatez, Donejakue Bidearen pasa-leku ere bada, eta horri zor dio bere gaskoierazko izena Soulac-eko XIII. mendeko Nòsta Dama de la Fin de las Tèrras basilikak. Gizateriaren Ondare deklaraturata dago beste monumentu sorta batekin. Eliza hau, alabaina, ez da apika inguruetan dagoen eraikin ikusgarriena. Soulac-era iritsi eta berehala, oso agerikoak dira hurbileko iraganaren parte diren "blockhaus" delakoak, Akitaniako kostaldeko beste leku batzuetan baino gehiago. Herri horren eta ondoko Le Verdonen artean, betoizko 350 babesleku inguru eraiki zituzten naziek.

Girondako estuarioa aitzinako garaietatik izan da kokaleku estrategikoa, itsaso bidezko Bordelerako sarrera baita. Normandiako lehorretzearen ostean, 1944ko abuztuaren 28an askatu zuten Bordele Aliatuek naziengandik. Baina De Gaullek berak idatzizko oroitzapenetan adierazi zuenez, "irailaren 17an urduritasuna sumatu nuen Bordelen. Alemaniarrak bertatik erretiratu ziren, baina inguruetan jarraitzen zuten, Royan eta Pointe de Graven lubakituak, porturako sarbidea eragotziz eta itzultzeko mehatxupean". Hain ziren egundokoak alemaniarren gotorlekuak,

Aliatuen aginteak horiek gainditu eta nolabait atzean uztea erabaki baitzuen.

Nazien kapitulazioa baino hiru aste lehenago, Frantzia ez zegoen oraindik guztiz askatua, beraz: Dunkerquen, Saint-Nazairen, La Rochellen, Re eta Oleron uharteetan, Royanen eta Pointe de Graven Alemaniako soldaduen nolabaiteko poltsa bakan batzuk geratu ziren. Isolatuak egonagatik, ordea, ez zioten gogor borrokatzeari utzi.

Gernika Batailoiaaren sorrera

Gernika Batailoiaaren sorrera eta garapena Kepa Ordoki irungo igeltsero eta gudariari zor zaio, nagusiki. EAE-ANVko militantea eta ELA-STVko kidea 1936ko Gudan borrokatu zen Euzko Gudarosteko San Andres Batailoian, 1937. urtean faxistek atxilo hartu eta Duesoko kartzelan (Kantabria) preso sartu zuten arte. Bertatik ihes egin eta Ipar Euskal Herrira jo zuen, baina Gurseko kontzentrazio-esparruan giltzapetu zuten berriro, Biarnon. Handik ere ihes egitea lortu zuen irundarrak, eta Baionan bizi izan zen errefuxiatu gisa, erresistentzian sartu eta hainbat ekintzatan parte hartu zuen arte.

Gernika Batailoiko kideak Medoc inguruko hondartzetan, San Andres batailoia zenaren ikurrina eurekin dutela.

1936ko Gudatik ihesi, hainbat euskal herritarrek parte hartu zuten erresistentzian eta makietan. Asko eta asko PCEn inguruko Unión Nacional Española (UNE) delakoan aritu ziren. Victorio Vicuña lasartearra izan zen gerrila honetako buruetako bat eta Bidasoatik gertu kantonaturako brigada bateko komandante. UNEren asmoetako bat Euskal Herrian ekintza armatuak burutzea zen, eta horretarako gudari euskaldunak ezinbestekoak zituen. Horregatik jarri zen harremanetan Kepa Ordokirekin. Azken honek, alabaina, Pirinioetan eta Landetan sakabanaturako euskal gerrillariak batu eta batailoia bat sortzeko agindua jaso zuen, Elio-



doro de la Torre kontseilari abertzalearekin Baionan elkartu ostean. 140 bat gudari elkartu zituen Salbaterra Bearnon.

Erbesteko Eusko Jaurlaritzaren aginduz, ordurako sortua zen Gernika Batailoia UNEtik banandu zen. Jesus Maria Leizaolak Frantziako Armadarekin izandako negoziazioen ondorioz, Gernikako 200 kideak Bordele inguruetara eramane zituzten eta 8. Erregimentu Misto Marokoar Atzerriarrean lekukotu ziren, Jan Chodzko komandantearen aginduetara. Gernika Batailoiarekin batera Libertad izenekoa ere abiatu zen, Federazio Anarkista Iberiarreko Manuel Santos komandantearen agindupean. Izatez, Gernika batailoia gutxi zuen batailoitik eta apenas iristen zen konpainia izatera.

“Beneragarri” operazioa

1945. urteko apirilaren 14an, azkenik, borrokara deitu zituzten Gernika Batailoieko gudariak, “Beneragarri” (*Vénérable*) bezala izendatua izan zen operazioan. Royan eta Pointe de Graveko gordeleku naziekin akabatzeko asmoz, airetik, lurretik nahiz itsasotik bonbardatu zituzten lehendabizi alemaniarren

Kepa Ordokik Pirinioetan eta Landetan sakabanatutako euskal gerrillariak batu eta batailoia bat sortzeko agindua jaso zuen Eliodoro de la Torre kontseilari abertzalearekin Baionan elkartu ostean

kokalekuak. Gernikarekin batera, Libertad batailoia eta Gerrillari Espainolen Brigada abiatu ziren Soulac-era bidean.

Guda zelaia txikia izan arren –25 kilometro zabal eta 20 luzetropalemaniarrek indartsu gotortuta jarraitzen zuten Soulac-eko inguruetan. 4.000 soldadu, 110 kainoi, 800.000 mina eta bestelako hainbat defentsazuzkatzen. Gainera, Britainia Handiko zerbitzu sekretuen arabera, Bilbo eta Portugaletetik iritsitako bizigaez horniturik zeuden, Martinez Campos general frankistaren

bitartez. Askatzaileen aldetik, berriz, 500 hegazkinetik, 13.000 soldaduk eta 40 gerra-gurdik hartu zuten parte orotara.

Apirilaren 14ko goiz hartan, Louis Souilly kapilaua soldaduak animatzen saiatu omen zen, euskaraz eta gaztelaniaz hitz bat bera ez zekien arren. Ondoren banatu zuten cognac-ak, seguruenik, kapilauaren hitzek baino eragin handiagoa izango zuen gudariengan. Soldadu euskaldunek “40 Kota” delakora iristea zuten helburu, Montalivet herriko sarreran.

“Borrokatzeko garaia heldu da. Jakinarazi Frantziako herriari euskaldunek badakitela askatasunaren alde borrokatzen eta hiltzen. Hartu Euzkadiko heriotzen mendeku. Durangon eta Gernikan heriotza eragin zuten alemaniar berak dira. Ez ahaztu Frantzia zuen erakusbi-deaz harro egongo dela... Gora Euzkadi Askatuta!”. Horiek izan





Arros-eko bateriari alemaniarrek Reichemberg kode izenarekin deitzen zioten eta 20 bat bunkerrez osaturik zegoen. Iturri batzuek Y-33 bezala izendatu izan dute euskaldunek eraso egindako azkeneko bunkerra, nahiz eta itxura denez izen ofiziala S-307 izan. Irudietan, bunkerraren kanpo eta barrualdea gaur egun, eta inguruan dagoen “erorien” omenezko oroitarria. Gernika Batailoian borrokan ari zirela hildako bost lagunren izenak ageri dira bertan.

omen ziren Kepa Ordokiren hitzak, iturri ezberdinek jasotakoaren arabera. Arratsaldean ekin zioten erasoari.

Dirudienez, aginte frantziarraren argibideak ez ziren oso zehatzak izan eta misioa suizidatzak hartu duenik ere izan da. “40 Kota” delarik 800 metroko mina zelai batek eta gurdien aurkako lubanarro

batek banatzen zituen; gainera, nazien kokalekua altuagoa zen eta 4 arma automatiko eta 160 soldadu inguru zeuzkaten kota defenditzen. Lehenengo saiakera horretan Gernika Batailoiko 4 gudari hil ziren eta beste 35 lagun zauritu zituzten.

Hurrengo egunean, batailoiak etsaia berriz erasotzeko agindua jaso zuen, baina berehala ezerezean

geratu zen, ordurako naziek atzera egin baitzuten eta marokoarren erregimentuak aurrera. Azkenik, apirilaren 15ean erori zen “40 Kota”, eta hurrengo egunean Gernika Batailoiko kideak Montalivet-en sartu ahal izan ziren, hainbat soldadu alemaniar preso hartuta.

Apirilaren 19an Carnot brigadak Soulac hartu zuen eta 20an Pointe

de Graverantz abiatu ziren; Arros-eko baterian topatu zuten nazien erresistentzia bortitzena. Gernika Batailoia, 2. Dibisio Blindatuarekin batera, Arros-eko bateriako azken bunkerrari oldartu zitzaion. Oldarraldiari apenas aurre egin gabe, eraikineko ofizialak bere buruaz beste egin eta berehala errenditu eiz zen goarnizio osoa.

Carlos Iñguiz tenienteak bandera nazia kendu eta ikurrina paratu omen zuen haren ordeaz, baina 2. Dibisio Blindatuak ez zuen espero hain azkar garaituko zituztenik, eta erasoari eutsi zion nahasmenaren erdian. Ustekabeko aliatuen sua jaso zuten orduan eta ofizialki batailoia honetan zauriturik eragin ez zuen arren, iturri batzuen arabera hildakoren bat ere izan zen.

Mikel Rodriguezek *Memoria de los vascos en la II. Guerra Mundial* liburuan jasotako lekukotasunen arabera, soldadu alemaniarrek beldur handia zieten tropa frantziarrei eta haien balizko errepresaliari. Gernika Batailoiko gudariak beren uniforme eta kaskoengatik bereizten

Apirilaren 14ko goiz hartan kapilaua soldaduak animatzen saiatu zen, euskaraz eta gaztelaniaz hitz bat ez zekien arren. Ondoren banatu zen cognacak seguruenik eragin handiagoa izango zuen gudariengan

ziren besteengandik, eta dirudienez soldadu nazi askok internazionala abestuz edo “*moi polonais*” (“ni poloniarra”) esanez entregatzen omen zitzaizkien euskaldunei. Lekukotasunen arabera, frantziarrek gehiegieriaz tratatu zituzten atxilotuak maiz. Euskal gudariak, ordea, gupida zieten soldadu alemaniarrei eta horietako gazteenak ezkutatu eta babestu zituzten, batailoiko kideztat hartuz.

Orotara, Gernika Batailoiko 5 soldadu hil ziren Medoc-eko guda-

zelaian. 29 urteko Juan Jose Jausoro Sasia sarjentua –Alonsotegikoa eta PSOEkoka–, 32 urteko Felix Iglesias Mina sargentua –Atarrabian jaiotako erreteriarra, komunista eta Larrañaga Batailoiko ofizial ohia–, 37 urteko Antxon Lizarralde –durangarra eta EAE-ANVkoa–, 18 urteko Anton Mujika –Tolosakoa eta EAJ-PNVkoa– eta Prudencio Orbiz –gipuzkoarra eta EAJ-PNVkoa–. Goarnizio alemaniarrean 600 hildako izan ziren eta Frantziako Armadan 300 inguru.

Promesak eta ametsak

Charles de Gaulle generalak berak errebista pasa zien euskal soldaduei Grayan-go aerodromoan, ikurrinaren eta Libertad batailoia-aren bandera errepublikar espainolaren aurrean agur militarra eginez. Gernika Batailoia txikiak Medoc-en egingakoa, ezintasun guztiak gaindituz, oso goraipatua izan zen beste konpainia eta batailoietako burkideen artean, “40 Kotaren” konkistan eta Pointe de Graveko aitzinaraztean erakutsitako kemenagatik bereziki.

Marikalanbre bizitzaren laborategian

5
Zz

Idazlea
ANA GALARRAGA AIESTARAN
Ilustratzailea
JOSE ANJEL LOPETEGI
6-8 urte

Nolatan ez dira urperatzen itsasontziak? Aireak badu pisurik?

Horrelako galderei erantzuteko, Marikalanbre bere sistema du: esperimentuak egitea. Eginez ikasten dena ez baita inoiz ahazten!

Zuk ere esperimentuak eginez ondo pasa nahi baduzu, eskuratu **Marikalanbre bizitzaren laborategian** gaztetxoentzako esperimentu-liburua.

Zure liburudendan eta Elhuyarren webgunean:
www.elhuyar.eus



Irrien Lagunekin
lankidetzan



elhuyar

Laguntzaileak



Gipuzkoako
Foru Aldundia





Ezkerrean: De Gaulle generala Gernika Batailoari errebista pasatzen, 1945eko apirilaren 22an Grayango aerodromoan; irudi historikoan ikurrinari agurra egiten ikus daiteke. Erdian: Kepa Ordoki komandantea. Eskuinean: batailoiko kideak, Agirre lehendakariaren bisita jaso zuten nean.

De Gaullek agurtu zuen ikurrina 1936ko Gudako Saseta Batailoiko San Andres konpainiarena zen, hain zuzen ere.

Pointe de Grave askatu zuten egun berean hasi zen Berlineko bataila, apirilaren 20an. Eta maiatzaren 8an eman zen amaitutzat II. Mundu Gerra, aliatuek Alemania naziaren baldintza gabeko errendizioa onartu zuten egunean.

Jose Antonio Agirre lehendakaria apirilaren 19an iritsi zen Parisera Amerikako Estatu Batuetatik, eta Medoc-era abiatu zen handik gutxira, Gernika Batailoiko kideak omentzera. Maiatzaren lehenean, Chodzko komandanteak guda gurutzea izeneko domina eman omen zion ondokoa esanez: “Zure herria askatzera goazenean, itzuliko didazu Gernikako arbolaren azpian”.

Maiatz hartan, Gernika Batailoiko 100 bat kide Paris inguruko Rothschild izeneko gaztelu batera eramán omen zituzten, isilpean. Bertan, AEBetako Armadaren trebakuntza jasoko zuten hainbat hila-betez, etorkizuneko balizko Euskal Herri independente bateko polizia izango zenaren ustezko hastapen-tan. Aliatuei emandako laguntzaren truke, Francoren diktadurarekin amaitzeko babesa jasoko zuten itxaropena zuten, antza, erbesteko Eusko Jaurlaritzako agintariek, Leizaolak, Irujok nahiz Agirrek. AEBetan izandako aldaketa politikoaren ondorioz, alabaina, agintari euskaldunek Washingtonekin ustez hitzartu zutena bertan behera gera-

tu zen. Guda irabazita, estatubatua-rrek bestelako buruhaustea zeuzkaten, eta frankisten aurkako eraso hori ez zen inoiz ailegatu. 1945eko irailaren 30ean Gernika Batailoia behin betiko desagerrarazi zuten.

Apirilaren 22an, Grayango aerodromoan errebista pasa ondoren, brindis moduko bat antolatu omen zen. Kepa Ordokik berak ARGIAri 1988. urtean eskainitako elkarrizketa batean adierazi zuenez, “naf-talina usaina” zerion bilkurari, eta handik alde egitea erabaki zuen komandante irundarrak. Halako batean, baina, De Gaullek deitu zuen eta ondokoa esan omen zion: “Komandante, Frantziak ez ditu

sekula ahaztuko euskal herritarrek geure herria askatzeko egindako ahalegin eta sakrifizioak”. Baina jakina da zertan geratu zen, Ordo-kik gogorarazi zion astekari honi: “Ikusi duzu hitz haiek haizeak norat eramán dituen”. Hainbat Guda Gurutze eskaini omen zizkieten euskal gudariei, baina norbanako gisa hartu beharrean, eroritakoei eta ikurriñari eskaini omen zizkieten. Handik egun batzutara Bordelen desfilatuz zuten, batailoia-ren argazki ezagunenetako batean ikus daitekeen bezala.

Gaur egun, hainbat oroigarri daude sakabanatuta Gernika batailoia-ren balentria gogorarazteko. Montaliveteko “40 Kota” delakoan hildakoen oroimenez eraikitako gunea dago, eta Soulac-Sur-Mer-en ere eroritakoen monumentuaz gain metalezko hainbat xaf-la-oroi-garri eta museo txiki bat, Medoc Iparraldeko Gotorlekuaren Oroimenezko elkarteak kudeatuta. Gertakariaren urteurrenean, Sancho de Beurko elkarteak eta Frantziako beste erakunde batzuk borrokaren omenezko ekitaldia antolatu izan dute. Gernikan bertan ere, Pasealekuko Eskola Publikotik gertu, badago batailoia-ren omenezko eskultura eta idatzi bat, eta Gernikako Batzarretxean batailoia-k erabili zuen ikurrina dago gordeta. Oroigarri guztietan deigarriena, ordea, Medoc-en zutik dirauten porlanezko eraikin erraldoi horiek dira, ezin izan baititu haizeak eramán, De Gaulleren hitzak bailiran. ■



Chodzko komandanteak batailoiko gudariei emandako ohorezko ziurtagirietako bat.

Baserritik otarrera, talde txikien bidez eragin

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



AntiguaOtarra

Bilgunea: Antiguotarrak elkarte
(Donostia, Matia kalea 31).

Sorrera urtea: 2010.

Otar kopurua: 30 gehienez.

Taldea hornitzen duten ekoizleak:

6 (barazkiak, arrautzak, oilaskoa, haragia, ogia...).



ANTIGUAOTARRAK

BARAZKI MORDOA jaten dute Idurre Zugazagasti eta Haritz Ugarte anti-guatarrek, garaian garaikoa eta berta-koa. Ez dute ordea supermerkatuan erosten. Astearte arratsaldero Anti-guotarrak elkartetik igaro eta orotari-ko elikagaiez hornitutako otarra izaten dute zain. Izan ere, biak ala biak jada bost urteko ibilbidea egin duen AntiguaOtarra kontsumo talde autogestionatuko kide dira.

Kontsumo taldeak 30 otar bete-tzen ditu astero, eta bakoitzak nor-banako, bikote, lagun-talde edo familia bana du jabe. Horretarako, ekoizle txikiekin soilik eta banan-bana egin dute harremana, asanblada bidez eta hainbat irizpide jarraituz aukeratu ostean. Bertakotasuna eta nekazaritza ekologikoan aritzea da batez ere aintzat hartzen dutena.

Ekoizleek elikagaiak elkartera eramaten dituzte, batere bitartekari-rik gabe, eta kontsumo taldeko kideek hartzen dute elikagaiak banatzeko ardura. Horretarako, astearte-ro bi kidek egin behar izaten dute banaketa lana: elikagaiak hartu eta otar bakoitzean dagokiona jarri. Zugazagastiren hitzetan: “Urtean hiru edo lau aldiz soilik egokitzen zaigu lan hori, eta trukean, tokian

30 otarren langa ez gainditzea erabaki dute, kontsumo taldea ondo kudeatu ahal izateko: “Hobe da talde txiki asko izatea, handi bakarra baino”.

tokiko produktu ekologikoak jasotzen ditugu astero”.

Otarra itxia da, eta hortaz, urte osoan eskatuko dutena aurretik planifikatzen dute. “Badakigu noiz jasoko ditugun arrautzak, noiz gazta edo noiz tomateak”. Horri esker, ekoizleek euren lana antolatu eta egonkortzeko aukera dute. Gainera, hilabeteko aurrerapenarekin ordaintzen diete baserritarrei, eta inoiz uzta hondatuko balitz ere, berdin ordaintzeko konpromisoa hartua dute. “Zorionez, oraingoz ez zaigu halakorik gertatu”.

Auzoko eragile aktibo

Diotenez, ekonomikoki ez dute ahailegin berezirik egin behar izan, hilerio ordaintzen duten kuotak ez baitu supermerkatuan erosiz gero xahutuko luketena gainditzin. Ugarteren arabera “egin beharreko moldaketa bakarra garaian garaiko produktua jatera ohitzea da”.

Kontsumo taldeko kide gisa parte hartzera bultzatu dituzten motibazioak asko dira: bertako ekoizle txikiei laguntzea, beste kontsumo

eredu bat sustatzea, produktu osasuntsuak eskuratzea... Kide bakoitzak bere lehentasunak ditu, baina bi hilabetean behin egiten dituzten asanbladen bidez eta erabakiak denen artean hartuta, proiektu komun bat eratzea lortu dute.

Horrez gain, auzoko eragile aktibo bat gehiago dira. Jaietako egitarauaren baitan ekintzak antolatzen dituzte urtero, eta erosi dute igaro berri den Korrikaren kilometro bat ere. Lekukoa eramateko haien otarrak betetzen dituen ekoizleetako bat gonbidatu dute gainera.

Halako ekimenei esker Antigua gero eta ezagunagoak direla nabari dute. Orain arte bezala modu horizontalean jarduten jarraitzeko 30 otarren langa ez gainditzea erabaki dute ordea, eta taldera batu nahi duen jende asko dagoen arren, itxaron-zerrendan izena eman behar izaten dute. “Ondo kudeatu ahal izateko hobe da kontsumo talde txiki asko izatea, handi bakarra baino. Auzoan bertan bada beste talde berriago bat, eta ea laster gehiago ere sortzen diren”. ■

Berrindustrializazio saiakera Bergaran

Candy-Hoover etxetresna enpresa enblematikoak Bergarako lantegia itxi behar zuela iragarri zuenetik, langile eta erakundeek sekulako ahalegina egiten dihardute jarduera industrial mantendu eta beharrari eusteko.

| URKO APAOLAZA AVILA |

ITALIAKO FUMAGALLI familiaren Candy enpresak 2014ko urriaren 30ean Bergarako lantegia itxi eta 150 langile kaleratuko zituela iragarri zuen, PPren lan erreformak ahalbidetzen dituen baldintza merkeak baliatuz. Bost hilabete, hamai-ka mobilizazio eta makina bat gestio-oren ondoren, Candyko beharginek aurre-erretiro eta indemnizazio baldintza duinak lortu ez ezik, itxaropena dute lanpostuei eutsiko dietela, Luxenburgoko Optimize SA konpainiak lantegian eskuter elektrikoak egiteko aukera zabalik baitago lerro hauek idazteko unean.

Egoera horretara iristeko, enpresaren, langileen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatutako akordioa giltzarri izan da. Baina urrats funtsezkoena ez da idatzizkoa izan, jarrera kontua baizik: giro gatazkatsu batetik elkarren arteko konfiantza izatera igaro dira alde batekoak zein bestekoak.

Kateak enpresaren atarian

2014ko urriaren 30 hartan, langileen ordezkariak Bergarako plantaren atarira irten ziren enpresako zuzendari-tzarekin bildu ostean: “Denok kalera goaz!” jakinarazi zuten. Langileei, egun askotan barruan pilatutako amorrua irauli zitzairen bat-batean, eta kateaz itxi zuten atea. Ertzainek eman behar izan zieten paso harra-patuta geratutako enpresaren ordezkari eta abokatu italiarrei, “gezurtiak!” oihupean.

Duela hamar urte Candyn 450 pertsona inguru aritzen ziren lanean. Kopuru hori jaitsiz joan zen apurka, batez ere azken urteetan, eta enplegu erregulazio espedienteak eguneroko ogi bihurtu ziren. Enpresak itxiera iragartzeko komunikatuan “galera estrukturalak” aipatu zituen eta “lanpostuak amortizatu” beharra. Begi-bistakoa ezal-tzeko hiztegia zen hura: Txinan diru gehiago irabazi behar duela-eta denak kalera.

Urrats funtsezkoena ez da idatzizkoa izan, jarrera kontua baizik: giro gatazkatsu batetik elkarren arteko konfiantza izatera igaro dira alde batekoak zein bestekoak

Hilabeteotan langileak etengabe aritu dira mobilizazioak egiten eta lortu dute Bergarako herritar nahiz erakundeek konplizitate eta inplikazioa. Aldundiaren parte-hartzea erabakigarria izan da negoziazioetan. Agurte Barruso Diputatu Nagusiaren kabinete buruak azaldu digu nola heldu zioten erronkari: “Jakin genuenean erabaki irmoa zela eta Bergarako plantaren itxiera atzerazina zela, harremanetan jarri ginen langileekin eta enpresarekin.

Esku hutsik baina. Langileek eskatu ziguten bideragarritasuna aztertze-ko; horrela hasi ginen biltzen berrindustrializazio prozesuetan esperientzia duen jendearekin eta aukera hori mahai gainean jarri genuen”.

Abenduaren 30ean ordu txikie-tan sinatu zuten lehen akordio bat langileek eta enpresak. Hala, 63 aurre-erretiratuentzako diru kopuru osagarria eta kalte-ordain duina lortu zuten, eta inportanteena, gainerakoentzat lantegian beste jar-duera industrial bat abiatu ahal izateko konpromisoa.

Europar funtzionatu izan duen berrindustrializazio prozesua

Konpromiso hori bi hilabete geroa-go ofizial bihurtu zuten Aldundiak, Candy-Hooverrek eta enpresa batzordeko sindikatu guztiek (ESK, ELA, LAB, CCOO eta UGT) sinatutako dokumentuan. Horren arabera, enpresak alokairuan emango luke lantegia, beste jarduera indus-trial bat aurrera ateratzeko, eta baita erraztasun gehiago ere. Langileek, berriz, jasotako indemnizazioa balizko negozio-ildo berri horretan inbertitzeko erabiliko lukete; kasu horretan Candyk indemnizazio handiagoa emango lieke.

Halako berrindustrializazio prozesuak Europar ohikoak direla dio Aldundiak, inbertitzaile berriei instalazioak eta diru poltsa bat baldintza onetan uzten zaizkie: “Ikusi ditugu horrelako prozesuak Fran-



ARGAZKI PRESS / ARITZ LOIOLA

Hilabeteotan langileak etengabe aritu dira mobilizazioak egiten eta lortu dute Bergarako herritarren eta nahiz erakundeen konplizitate eta inplikazioa. Gipuzkoako Aldundiaren parte-hartzea erabakigarria izan da negoziazioetan.

tzian eta Italian –dio Barrusok–, herrialde horietako deslokalizatzearen inguruko legediak ere sustatzen du hori; halako erabakiak ezin dira hartu saiakera bat egin barik”. Zentzu horretan, “babak hor dituzten” langileen jarrera txalogarria iruditzen zaio kabinete buruari: “Enpleguaren aldeko apustua egin zuten eta eutsi egin diote mahai gainean jarritako aukerari”.

Asmo-akordioaren puntu inportanteenetako bat bi aldeen arteko oreka da. Candyk jarduera berriari betoa jartzeko eskubidea dauka, zuzenean edo zeharka bere negozio-ildoarekin lehian balego. Langileek ere proiektu berriari uko egiteko aukera dute, lan baldintzekin ados ez baleudeke.

Aldundiak beregain hartu zuen inbertitzaile berri bat aurkitu eta bideragarritasun plana egiteko arduraria. Berrikitan aurkeztu die proposamena langileei: Bergarako lantegian motor elektrikodun eskuterrak egitea. Luxenburgoko Optimize SA

enpresaren Scoot’el proiektuak aurreikusten du 800 eta 1.000 watt-eko indarra duen eskuter modelo berri bat egitea, 50 zentilitroko potentziakoa eta 95 kilometroko autonomia duena.

Denbora tarte laburra daukate orain erabaki bat hartzeko. Aldundiak epe ertainean eta luzeagoan izango lukeen bideragarritasun ekonomikoa aztertzen dihardu uneotan,

“ez baitugu jolastu nahi hamarna familiaren etorkizunarekin”. Langileen artean ere zuhurtzia da nagusi.

Asmatu edo ez, prozesu honek guztiak agerian utzi du lan erreformak enpresei aldebakartasunaren alfonbra gorria jarri arren, desindustrializazioari aurre egiteko formulak badaudela administrazioaren borondatea eta langileen ausardia-ekin. ■

LUArkitektoak
hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitzak proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Argia Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5, Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

Haurrek Katalunian euskaraz egin ahal izateko gunea

Poliki-poliki izeneko material didaktikoa sortu dute Katalunian haurrek euskara ikas dezaten. Bartzelonako Euskal Etxean eta Sant Cugat udalerrian jarri dute abian egitasmoa. Helburua da familia euskaldunen seme-alabek beste haur batzuekin euskaraz hitz egiteko gune bat izatea.

| SAIOA LABAKA |

MATERIAL erakargarri, sustatzaile eta dinamikoen bitartez hurrei euskara ikasteko aukera eman nahi diete Katalunian. Hezkuntza-materialaren hezurdura osatzen dute Zapataldea izeneko herri berezi bateko biztanleen abenturek, nahaspilek eta gertaerek. Euskaraz hitz egiten dute bertako biztanleek (estralurtarrak, sorginak, euli erraldoiak, bikingoak, harpetarrak, txerriak eta dragoiak) eta hori da euren arteko lotura bereizgarria.

Ahozkotasuna lantzea da egitasmoaren helburu nagusia; haurrek hizkuntza erabiltzea da erdietsi beharrekoa. Ikasturte oso baterako iraupena dute materialek eta lau gai nagusi lantzen dira urte bakoitzean. Esaterako, lehen urterako gai hauek proposatzen dituzte: eskola, lagunak, azoka eta oporrak. Ipuin kontaketa izaten dira abiapuntu, baita ondorengo jolas, zeregin eta ekintza guztien hari nagusia ere. Gaien inguruko hiztegia lantzeaz gain, aditzak eta gramatika egiturak ere jorratzen dituzte.

Bartzelonako Euskal Etxean Haurren Txokoa zerbitzua abiatu dute. Etxeko txikientzako gune horretan, astean egun batez —ostiralean bi orduz—, haurrek euren artean euskaraz hitz egiteko parada dute, jolas egiten duten bitartean. Euskara ulertzen duten 3 urtetik gorako umeentzat antolatutako egitasmoa da.

Orain bi urte hasi ziren Poliki-poliki materiala erabiltzen Haur



Sant Cugateko Haur Txokoa, guraso eta seme-alabak.

Txokoa. Ordura arte, oro har, umeek jolas baino ez zuten egiten bertan eta euskara erabiltzearekin batera, katalana eta gaztelania ere tartekatzen zituzten. Azken finean, haurrek katalanez hitz egiten dute euren ikastetxeetako ikaskideekin eta hizkuntza hori erabiltzea ohiko joera izaten da. Bestalde, Txokoa ez zuten jolasa eta hizkuntza uztartzeko egitura sendorik, ez eta euskara irakasteko jarraibide zehatzik. Hori dela-eta, aisialdi tarte horri etekin handiagoa ateratzeko asmoz jarri zuten abian proiektua.

Pasa den ikasturtean, 3 eta 7 urte bitarteko 16 ikasle izan zituzten Haur Txokoa. Egitasmoak harrera

ona izan zuen eta baikor dira antolatzailerak: haurrek euren artean euskara erabiltzea lortu zuten aisialdiko bi ordu horietan bederen, baita irakaslearekin ere. Taldean adin ezberdineko umeak egonik, guztien motibazio maila mantentzea ez dela erraza izan gaineratu digute ardura-dunek.

Zorione Aperribay da haurren Txokoko hezitzailea. Iaz, berak erabili zituen lehenengoz Poliki-poliki egitasmoko materialak Txokoa, eta aurten ere ildo beretik ari dira lanean. Umeen beharretara hobeto egokitzeko, bi talde sortu dituzte: 3-6 urte bitartekoena (8 haur denera) eta 7-10 urte artekoa (12 kide).

Guraso mistoak eta haur hirueledunak

Haur Txokora hurbiltzen diren haurren familiak kasu guztietan mistoak direla dio Aperribayk: gurasoetako bat euskalduna izan ohi da eta bikotekidea ia beti katalana. Dena den, badira beste lekuetakoak ere; esaterako, kanariarrak eta italiarrak. Irakasleak adierazi digu haur guztiak hirueledunak direla eta euren etxeetan ahalegin handia egiten dela euskara, gaztelania eta katalana normaltasunez bizitzeko. Guraso asko beldur baitira seme-alabek ez ote duten ama-hizkuntza eta horrekin batera identitate zati bat galduko.

Sant Cugateko Gure Txokoa

2013ko urte amaieran, Bartzelona probintziako Sant Cugat udalerrian, 12 bat familia euskaldunek euren haurrak giro euskaldunean hezteko helburuz Gure Txokoa elkarte sortu zuten. Udalerriko kultur etxean asteen bitan hasi ziren elkartzeko haurrek euskara landu zezaten eta gainontzeko umeekin aisialdia euskaraz bizi zezaten. Handik gutxira, Bartzelonako Euskal Etxera jo zuten hezitzaile baten bila, eta Zorione Aperribayekin hasi ziren lanean Poliki-poliki materiala jorratzen.

Leire Irigaray donostiarra izan zen elkartearen sustatzaileetako bat eta berak azaldu dizkigu ekimenaren nondik norako nagusiak. Sant Cugateko haurtzaindegi batean egin zuen topo lehenengoz ama euskaldun batekin eta hortik abiatuta hasi ziren harreman sarea pixkanaka zabaltzen, handik eta hemendik. Herriko aldizkarian iragarkia jarri zuen Irigarayk familia euskaldunak bilatzeko asmoz. Sant Cugateko euskaldunen sarea zabalagoa bada ere, egun, hamar bat familia euskaldunek parte hartzen dute egitasmoan eta adin bertsuko seme-alabak dituzte, 3-6 urte artekoak. Asteartero biltzen dira Haur Txokoa. "Sorpresak handia izan da Sant Cugaten hainbeste familia euskaldun bildu izana, eta gainera

euren seme-alabekin euskaraz mintzatzen direnak. Pozik gaude zentzu horretan", dio Irigarayk.

Oro har, Sant Cugateko familia gehienak ere mistoak dira, bikote euskaldun-katalanek osaturikoak. Etxe barruko hizkuntza kudeaketaz galdetu diogu ekimenaren sustatzaileari: "Gure etxean, bikotekidearekin katalanez hitz egiten dut. Noizean behin, euskara erabiltzen dugu berak zer edo zer ulertzen duela, baina oso gutxitan. Haurrei euskaraz egiten diet nik eta bikoteak katalanez. Oro har, guraso gehienek horrela jokatu dute".

Gurasoak pozik daude Haur Txokoaren dinamikekin. Beharrezkoa ikusten dute familatik kanpo haurrek euren artean euskaraz hitz egiteko eremua izatea. Badirudi, gainera, haurrei funtzionamendua eta edukiak erakargarri zaizkiela. Balorazio positiboa egiten dute eta egitasmoarekin aurrera jarraitzeke asmoa dute. "Zailena ikusten dudana da Txokoko haur guztiek euren artean euskaraz hitz egitea. Denek ez dute euskara maila bera, batzuek oso ondo menderatzen dute, beste batzuek ez hainbeste... eta euren joera da katalanez hitz egitea. Lorpen handia izango litzateke talde horretan euskara izatea harreman hizkuntza. Ahalegina egingo dugu". Gainera, Haur Txokoko eskolen dinamikekin etxean ere jarrai dezakete gurasoek, nahi izanez gero, Poliki-poliki nahi adina material baitu horretarako.

Egitasmoaren zabalkundea

Bartzelonako Euskal Etxean eta Sant Cugaten egitasmoak izan duen harrera ona ikusirik, ekimenaren antolatzaileek jakinarazi digute proiektua Kataluniako beste eskualde batzuetan abian jartzeko egokia izan daitekeela, baita euskara hizkuntza gutxitu edota bertako hizkuntza ez den lurraldeetan ere. Harago joanez, Euskal Etxeen sarea baliatuz Europa eta munduko Euskal Etxeetan ere jar liteke abian. Egitasmoa ezagutarazteko lanetan hasiko dira, poliki-poliki. ■

VITORIA
GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu



Lantegiak, ikastaroak, hitzaldiak, aurkezpenak...

• **AUTO-FIKZIOAREN GURPILAK.** KATIXA AGIRRE Idazleekin solasean egitasmoaren barruan. Judimendi gizarte etxea. Apirilak 15, 19:00

• **INON EZ, INOIZ EZ** Iban Zalduaren liburuaren irakurketa jarraitua. Goiuri jauregia. Apirilak 21, 08:30-12:00 eta 15:30-19:30

• **EUSKARA GASTEIZKO AISIALDIAN** Azkerketa baten aurkezpena. Siadeco. Oihaneder Euskararen Etxea. Apirilak 22, 18:00

Ikuskizuna

• **MALGU DA GAUA** Arkaitz Mendozaren eta Ekaitz Unai Gonzalezen kontzertu errezitaldia, Chopinen musikarekin eta Harkaitz Canoren testuekin. Aldabe gizarte etxean, ekitaldi aretoan. Apirilak 23, 19:30

Haurrak eta familiak

• **AURORITA BETI POLITA** Lur Korta. Ipuin kontalaria. Hegoalde gizarte etxea. Apirilak 15, 18:00. 4 - 8 urte 1€

• **MADDI ETA TXALAPARTA** Hala Dzipo kultur elkarte. Ipuin kontalaria eta lantegia. Ariznabarra gizarte etxea. Apirilak 18, 12:00. 4-20 urte. 1€

• **PARKE JURASIKOA** Dinosaurio lantegia. Aldabe gizarte etxea. Apirilak 21. 18:00. 5-7 urte. 1€ (bazk)

• **MAGIA LANTEGIA** Arroxbola taldea. Arana gizarte etxea. Apirilak 20, 18:00. Judimendi gizarte etxea. Apirilak 22, 18:00. 7-12 urte. 1€ (bazk)

• **IKUSI AL DUZU ILARGIA?** Ipuin kontaketa ilustratua. Arriaga gizarte etxea. Apirilak 22, 18:00. 3-7 urte. 1€

Musika

• **BADOK.INFO eta AMORANTE** Oihaneder Euskararen Etxean. Apirilak 17, Aurkezpena 19:30ean. Jarraian Iban Urizar "Amorante" kontzertuan.

• **BERRI TXARRAK** Kontzertua Jimmy Jazz aretoan. Apirilak 19, 20:00. 14€

• **MAKALA JAZZ FUNK BAND** Kontzertua Parral tabernan. Apirilak 21, 20:30

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

DEPARTAMENDUETAKO BOZAK

Sarkozy garaile, PS hondatua, FN gelditua eta EH Bai indartsu

Hautesleen erdiak besterik ez du bozkatu. Zentro-eskuinak 67 departamendutan irabazi du, ezkerrek 34tan. Departamentuetako 28 kontseilu ezkerretik eskuinera pasa dira. Fronte Nazionalak (FN) bat bera ere ez du lortu. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia eskuinak sostengatutako zentristen eskura itzuli da. EH Baik emaitza onak lortu ditu Iparraldean.

| MIKEL ASURMENDI |

FRANTZIAN BIPARTIDISMOA kolokan zegoela iragarri genuen lehen itzuliko emaitzak aztertu ondoren. Alta, FN geldiarazia izan da. Horren eragile nagusiak izen berezia dauka: Nicolas Sarkozy. UMPko buru berriak Frantziako presidentziara itzultzeko burua hartu du berriz ere.

Departamenduetako bozei egin diegun lehen argazkia da honako hau: UMP eskuindarra jaigi da garaile. Zentristek lekua berreskuratu dute –Modem-eko Françoise Bayrouk burua altxatu du berriz ere–. Ezkerra hondoratu da, PSren porrota erabatekoa izaki. FNren indarra bistakoa da (bozen %20 erdietsi ditu), alabaina hauteskunde sistemak mugatzen du haren indarra. Bestalde, bozemai-leen %50ak baino ez du bozkatu. Demokrazia ez da batzuek agertu nahi duten behar bezain osasuntsua.

Hollanderen eta Vallsen ezina

Departamenduek ez dute benazko muntarik, baina boterea kudeatzen dutenentzat berealdiko instituzioak dira estatuko politikagintzan. Sarkozyk ongi baino hobeto baliatu ditu oraingoan. FN indartsua geldiarazi du presidentziara bidean eta UMPko beste buruak –Fillon, Copé eta Jupé arerioak– neutralizatu ditu denbora laburrean.

François Hollande presidenteak eta Manuel Valls lehen ministroak Eliseo eta Matignoneko besaulkiei tinko atxikiak eta benetako autokritika egin gabe segitzen duten bitartean –ezkerra erakundeetatik erauziz–,



GAIZKA IROZ

Jean Jacques Lasserre Paueko Kontseilu Nagusiko burua izan liteke berriz ere.

hauteskondeek Bayrou zentrista Sarkozy eskuindarraren lehiakide legez jarri dute berriz ere, Frantziako politikaren paradoxa agerian utziz. Eskuina eta zentroa indar aliatuak dira, alta, arerio gisa agertu nahi dute berriz ere. Efektu politiko zinez engainagarria.

Lasserre departamenduaren buru, baita abertzaleek burua ageri ere

Pirinio Atlantikoak departamendua eskuindarra izan da historikoki, indar zentristek kudeatua. Ezkerrek gobernatu du azken legealdian –PSko Labazéren eskutik–, alabaina Jean Jacques Lasserre berreskuratzeko zorian da berriz ere. Zentro-eskuinak 27 kantonamenduetako

hamabost bereganatu ditu, Ipar Euskal Herrian zortzitan nagusitu da. Errobi-Aturri eskualdean EH Bai koalizioa Fabienne Ayensa eta Alain Iriart kontseilariak ordezkaturiko dituzte indar abertzaleak. Ezkerreko abertzaletasunak bi ordezkari ditu lehen aldikoz.

EH Bai indarra errotuta dago. Bost kantonamendutan lehiatu da bigarren itzulian eta 24.661 boz lortu ditu. Bigarren indar bozkatuena izan da. Frantzia ez bezala –FNren efektua gutxietsi gabe– ezkerreko abertzaleek gero eta eragin handiago dute departamenduko politikan. Haatik, eragin horren emaitzak ikuskizun dira oraindik ere. Izan ere, euskal instituzioa da abertzaleen xedea. ■

Enpresek bezeroei euskarazko zerbitzua bermatzeko lege proposamena aztergai

EH BILDUK Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko duen lege proposamenak EAEko enpresen hizkuntza-betebeharrak zehaztea du helburu, kontsumitzaileek informazioa euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

EAEko biztanleei begira aritzen diren enpresa eta establezimendu guztiei ezarriko lieke legeak bezeroekiko harremanak euskaraz ere eskaintzeko betebeharra, “betiere malgutasunez, inposaketarik gabe eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta”.

Onartzeke dagoen proposamenak urtebeteko epea ematen die enpresei euren bezeroekiko idatzizko harremanak euskaraz eskaintzeko. Ahozko komunikazioaren kasuan, urtebete izango lukete 50 langile baino gehiagoko enpresek; bi urte 5 eta 50 langile artekoek eta lau urte 5 langile baino gutxiagokoek.



Enpresa eta establezimendu guztiei ezarriko lieke legeak bezeroekiko harremanak euskaraz ere eskaintzeko beharra.

Komunikazio-operadore, energia-konpainia eta finantza-erakundeek kasuan bakarrik ezarriko lirateke isunak legea bete ezean, zerbitzu unibertsalak eta interes orokorrekoak eskaintzen dituztelako.

Jaurlaritzak 2008an onartu zuen kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko dekretua baina Eusko Jaurlaritzak onartu duenez, betetze-maila eskasa izan du.

Udal aktak euskaraz bidaltzea legezkoa

CARLOS URQUIJO Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariari halaxe gogorarazi dio epaileak. Irurako Udalarri arrazoia eman eta udal aktak Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariatzara euskaraz bidaltzea legezkoa dela ebatzi du Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako 3. epaitegiak. Udaletatik euskaraz helarazten diren dokumentuak ez onartzea “hizkuntzaren ofizialtasuna ez aitortzea” dela arrazoitu du.

Epaia ez du “zentsuzkotzat jotzen” EAEn euskaraz idatzitako dokumentuak ez onartzea Espainiako Estatuko Administrazio Orokorak, “ulertuko ez balitu bezala”.

Gernikako Estatutua duela 35 urte onartu zen eta Euskararen Legeak 32 urte ditu, horrenbestez, botere publikoa “derrigortuta dago autonomia erkidegoan hizkuntza horretan egiten diren herritarren eskaerak jaso, tramitatu eta erantzutera”, epaian ebatzi dutenez. Autoa behin betikoa da.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Kapitalismoaren biktimak

MIREN PEÑA, 43 urteko emakume langile nafarra, sistema kapitalista honen azken biktima da oraingoz. Sistema honi berdin zaio bere zerbitzura dauden pertsona hauen egoera humanoa, etekinak bai ez ditu bilatzen. Miren bakarrik bizi zen eta 20 urteko alaba zuen. Bizitzari uko egin zion martxoaren 21ean, bere bankuaren gutuna jaso ostean. Arazoak zituen hipoteka ordaintzeko, langabezia prestazioa bukatu baitzitzaion. Gutunean bankuak jakinarazi zion ez zuela betetzen hipoteka birnegoziatzeko baldintzetako bat. Oraindik ez zen etxegabetzerik egon, baina dirudienez, gutun hori izan zen azken tanta egoera dramatikoak gain hartzeko.

Miren LAB sindikatura afiliaturik zegoen. 2013ko irailean kaleratu zuten hamar lankiderekin Orkoien go Faurecia plantatik –Volkswagen hornitzen duen enpresa–. Lanik gabe, langabezia prestazioa jasotzen hasi zen eta hilero-hilero ordaintzen zuen hipoteka. Baina prestazioa amaitzean hipotekari aurre egiteko zailtasunak etorri ziren. Bankuaren gutuna jaso ondoren, Laboral Kutxako bulegoan bilera baterako deitu

zuten martxoaren 23rako. Bazterketaren marra igarota eta balizko etxegabetzearen beldur, Mirenek nahia go izan zuen bilera horretara ez joan, bi egun lehenago aitak hilda aurkitu zuen Artika herriko bere etxean. Bere buruaz beste egin zuen. Aritmetika kapitalista zoritxarrekoa bete da: despidoari gehitzen badiozu etxegabetzearen beldurra, heriotzarako probabilitate handiagoa izango duzu.

Miren ez da lehena ezta azkena izango ere, tamalez. Bi urtetik hona Euskal Herrian jadanik hainbat lagunek egin du bere buruaz beste, etxegabetu egin behar zituztelako, langabezia geratu zirelako edo bi arrazoiengatik batera. Langile baten azkeneko suizidioa ere Nafarroan gertatu zen, Altsasuko Sun-sundegui enpresatik kanporatua izan zen pertsona batena, hain zuzen. Ea behinik behin halako egoe- rek beste sistema ekonomiko-sozial bat eraikitza bultzatzen gaituzten, ororen gaintetik giza duintasuna errespetatuko duena.

Juan Mari Arregi

Ukrainako gatazkak badu irabazlea: Monsanto du izena

“Ekialdeko Grezia” deitu dio *The Economist*ek Ukrainari, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak antzeko errezeta ezarri dielako krisiaren aurrean: gastu sozialen murrizketa basatiak herritar xehearen kaltean eta nazioarenak diren natur baliabideak multinazionaleri eskaintzea. Gerraren atzean beti dago dirua.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GARAI GARRATZAK UKRAINAKO herritarrentzat, Kieveko legebiltzarrek martxo hasieran onartu dituen aurrekontuek iragartzen dutenez. Politika sozialetan, klase guztietako murrizketak. Inflazioa ofizialki –zenbait adituk diote askoz handiago dela– %28an daukan herrialdean jubilatuei pentsioak %15ean jaitsiko zaizkie. Tonu berean aurrekontuen atal orotan.

Neoliberalismoaren biblia den *The Economist*-ek “*The new Greece in the east*” kronikan azaldu du Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Kieveko gobernuarekin sinatu duen maileguan aurreikusten dela 2013tik 2017ra bitartean estatuaren gastu soziala –langabezia subsidioak, ezintasuna dutenen soldatak, eta abar– %30ean moztu direla.

2013an Ukrainako lehendakari Viktor Ianukovitxek uko egin zion NDFk eskaintzen zion 15.000 milioi euroko maileguari, horren ordeztu nahiago zuelako Errusiak gasaren prezioan agindu zion 13.600 milioiko deskontua. Baina hori iraganeko kontua da. Ianukovitx bota zuten eta NDFrekiko ituna dago martxan, aipatu 15.000 milioiak epe laburrera, epe luzera agintzen direlarik 36.000 milioi gehiago. Zeren truke?

Estatuak *argaldu* egin behar omen duenez, gastatzeko ahalmena galdu

alegia, Naftogaz konpainia publikoari emandako laguntzak ere moztu egin behar dizkio. Oinezko herritarren kalterako hau ere: ondoko asteetan etxe bakoitzak berotzeko eta kozinatzekeko darabilen gasa lehengoaren halako bi pagatu beharko du, edo gehiago.

Donbasseko gerraren zalapartarekin mendebaldetarron belarrietara ez dira iritsi murrizketen kontra Ukrainan langileek eta herritarrek burututako protesten hotsak. Handienetakoa abenduaren 29an egin zuten parlamentuaren aurrean, NDFekiko ituna eztabaidatzen ari zirenean.

Zenbait hedabide txikik azaldu zuenez, langile erakundeek salatu zituzten iragarritako neurriak: inportazio guztientzako %5-%10eko zergak, jubilatuen pentsioentzako %15eko zerga, 60 metro koadro baino handiagoko etxeentzako zerga berria, irakasle eta medikuen enpleguak urritzea, soldata eta pentsioak ez eguneratzea inflazioaren arabera, ikatz meategiak ixtea ekialdeko eskualdeetan, errepide eta trenbideak pribatizatzea...

Panorama beltz horretan onuradun bakarrak militarrek eta oligarkak dira: gastu militarra Barne Produktu Gordinaren %1etik %5era igo da, langileen soldaten gainean patronalak ordaindu beharrekoa jai-

Ukrainako kanpo aferetarako ministro Leonid Kozhara –erdian eserita hizlariari begira– US-Ukraine Business Council (USUBC) erakundeko buruzagiekin iazko urriaren 8an egindako bilkuran. Ikustekoa da USUBCko bazkideen zerrenda luzea, industria aeroespazialekoak, agro-industriakoak, aholkularitza-koak, banka eta finantzakoak, informatikakoak, Gobernuz Kanpoko Erakundeak... Elkartean parte hartzen dute AEBek Ukrainan edukitako sei enbaxadore ohik eta Ukrainak AEBen enbaxadore edukitako Oleh Shamshurrek. Hau gaur egun *senior advisor* ari da Hill + Knowlton Strategies *public relations* alorreko multinazionalen. Komunikazioaren alorreko aholkulariok ezinbestekoak dira operazio komertzial handietan agintariak bezala herritarren iritzia kontrolpean edukitzeko, iritzia publikoa esaten zaiona. Hill + Knowltonen Ukrainan daukan burua Monsantoaren aholkulari ere ari da.

tsi %42tik %16ra. Ukrainak NDFarekin hitzartutako itunak, ordea, murrizketa sozialez gain badu beste osagai bat herrialdearen ondasun preziatuena hankaz gora jarriko duena.

32 milioi hektarea goldatuz, Errusiaren ondoren Ukrainak dauka Europako soro eremurik zabalena. Bertako *chernozem* (lur beltz) famatuak baimentzen dio izaitea Europar txapeldun arto ekoizpen eta esportazioan, bigarren ekilore produkzioan –munduko ekilore-olio esportatzaile nagusia– eta liderra gari eta garagarretan ere.

Lurraren salmenta liberalizatu

Izugarri aldatu da nekazaritza Ukrainan 1991tik hona. Sobiet Batasuna eroririk, estatuarenak ziren lurak –*kolleboz* etxalde handien bidez kudeatuak– pribatizatu egin ziren, baserritar bakoitzari 4 hektarea inguruko eremua izendatuz. Geroztik, ordea, lurraren jabe go erreala eta oro har nekazaritzako jarduera osoa gero eta esku gutxiago eta enpresa handiagotzat konzentratu da.

Lur aberats horien goseak zeuden eta daude Mendebaldeko korporazio handiak. Horregatik daude agro-industriako korporazioak NDFk Kievekin hitzartu itunaren erdi-erdian.



Ukrainako krisiaren alderdi hau zehaztasunez azaldu du Kaliforniako Oakland Institute erakundeak, korporazioen jarraipen zorrotza egiten duenak. Oaklandek, agiri luzeagoen artean, Elisabeth Fraserrek egindako laburpen hau plazaratu du: “*The winners and losers of Ukraine’s austerity agenda*” (Ukrainako austeritate agendan nortzuk dira garaile eta nortzuk galtzaile).

“NDF eta Munduko Bankua –dio Fraserrek– bultzaka aritu dira Ukrainak ezabatu dezan nekazaritzako lurak saltzeko moratoria. Iazko martxoan Heinz Strubenhofek, Munduko Bankuak agro-industriako inbertsioetarako daukan buruak, esan zuen garaia iritsia

dela lurraren pribatizazioaz hitz egin hasteko eta presa sartu zion Ukrainari ‘hasi dadin dena prestatzen laborantzako lurraren salmentak baimentzeko’, atzerriko inbertsiogileei esan nahi da”. Etxalde kolektiboak desegin eta estatuaren lurak banatu zirenetik, salmentaren debekua egon da *de facto*, motaroria moduan.

Ukrainako gobernuari eskatu zaion beste neurri bat da labore transgenikoen debekua ezabatzea. Agro-industriak munduan daraman estrategia ezagutzen duena ez da harrituko, pakete berean globalizatu baitutuzte lurren eroste edo lapurreta, etxaldearen industrializazioa eta labore genetikoki eraldatuen hedatzea.

Hau Ukrainan nola gauzatu den Joyce Nelson ikerlari kanadarrak, erakutsi du. Besteren artean “*Sultans of Sleazy: PR & the Media*” (Ustelkeriaren jauntxoak: harreman publikoak eta hedabideak) liburua-ren egileak, Counterpunch gune aurrerazalean plazaratu du “*Ukraine opens up for Monsanto, land grabs and GMOs*” (Ukrainako ateak zabalik Monsantoerentzat, lur lapurreta eta transgenikoentzako).

Debekua kendu aurretik, 2013an, Monsanto 140 milioi euro inbertitu zituen Ukrainan hazi transgenikoen enpresa batean. Bere alde lobbygintzan aritu dira aurretik eta ondoren Ukrainako lurjabe handien elkarteak. Horien babesean Monsanto abiarazi zuen *Grain Basket of the Future* (Etorkizuneko Laboreen Saskia) proiektua

Joyce Nelsonek kontatu duenez, multinazionalen lobbygintzan garrantzia berezia eduki du US-Ukraine Business Council (AEB-Ukraina Negozio Elkartea) delakoa. Bertan parte hartzen dute bi herrialdeetako agintari politikoei, AEBetako agro-industriako firma handiek eta kimikan bezala bioteknologietan munduko liderrak diren Monsanto, DuPont, Syngenta, Bayer eta Dow konpainiek.

Burtsako inbertsiogileei aholkuak ematen dizkien Seeking Alpha guneak idatzia: “Monsantoren posizioek irabazi egingo dute Ukrainako krisiarekin (...) Krisitik ateratzeko Ukrainak bere baliabide preziatuena erabili beharko du eta Monsanto ondo kokatuta dago probetxua ateratzeko”. Horra gerra on baten bentajak. ■



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Nik eskatu nuen

IPAR EUSKAL HERRIAN joan den martxoko udal hauteskundeetan ikusi zen abertzaleen botoa jadanik ez zela bazterrekoa. Hauteskunde mota desberdina bada ere, departamenduko hauteskundeetan joera berretsi eta abertzale-tasunaren esparrua finkatzen ari dela ikusi da.

Sakabanatuta agertzeko joera izan dute abertzaleek, baina oraingoan gehiago handia EH Bairen inguruan egituratu da eta emaitzak oso onak izan dira: hamabi kantonamenduetatik bostetan bigarren itzulira iragan ziren eta horietako batean, Errobi-Aturrin, botoen ia %38ra iritsiz. Hori marka itze-la da abertzaletasunarentzat. Urte luzetan PS eta eskuinaren arteko bisagra gisa jardun badu ere, oraingoan ikusten da bigarren posizioa har dezakeela eta horrek alternatiba izaera ematen dio. Marka da baita ere Fronte Nazionala botoen %14ra hurbiltzea, Frantzia baino askoz apalago, baina hemen inoiz baino gehiago.

Ikusgarria izan da Errobi-Aturrin bigarren itzulian EH Baik Fronte Nazionalaren aurrean lortutako nagusitasuna -%74,3/%25-, kantonamendu guztietako handiena. Horrek garbi erakusten du Fronte Nazionalarekiko dagoen arbuioa, baina EH Baiko hauta-gaitza era ikusgarrian agertzea ere ahalbideratu du. Fabienne Ayensa eta Alain Iriart izango dira abertzaleen ordezkariak Paueko Kontseilu Nagusian.

Parte hartzearena da beste datu esanguratsuetako bat: boto emai-leen erdia etxean geratu da Ipar Euskal Herrian. Hauteskundeen balioaz hitz egitera behartu behar-

ko lukete ezinbestean datu horiek, baina ez da hausnarketa zabaldu-ko, ez da gehiegi interesatzen. Europako Batasuneko iazko hauteskundeetan boto eskubidea zutenen %43,09k bozkatu zuen, eta analista ofizialak pozik agertu ziren, 2009ko hauteskundeetan %43koa izan zelako eta, beraz, zerbait hobetu zelako.

Harrigarriena da Otegiren askatasuna eskatzeko alderdi eta instituzio gehienek aldetik dagoen mugimendu urria

Gainerakoan, zentro-eskuina nagusitu da Frantzia, baita Ipar Euskal Herrian ere. François Hollanderen orain arteko politika gogor zigortu nahi izan dute lehendakaritzara aupatu zuten sek-tore guztiek eta Alderdi Sozialistak danbateko handia hartu du oro har. EBko austeritate haizeek era-man zuten Hollande Eliseora, baina bere politikek etsipena eka-rrri dute zentro-ezkerreko boto emai-leen zati handi batera. Nicolas Sarkozy UMPko buruak ulertu du ateak irekiak dituela 2017ko lehendakaritzarako eta data urrun bada ere, bera badoa.

ARNALDO OTEGI askatu eta gai-nerako euskal presoak etxeratze-ko oso izen garrantzitsuak bildu ditu nazioarteko kanpainak, besteak beste, José Pepe Mújica, Fernando Lugo, José Manuel Zelaya, Lucía Topolansky, Desmond Tutu, Mai-read Maguire, Adolfo Perez Esquivel, Ahmed Kathrada, Ange-la Davis, Cuauhtémoc Cárdenas eta Gerry Adams.

Izen oso esanguratsuak dira. Horietako askok ezagutzen dituzte espetxeak barrutik eta logikoa iru-ditzen zaie euskal presoek ere etxe-rako bidea har dezaten hemengo gatazkak konponbidearen bidea hartu duenean.

Arnaldo Otegiren izenak ema-ten du aukera euskal presoek auzia nazioarteratzeko. Munduan logikoa ikusten da gatazketako mina bakerako erabiltzea horretarako baldintzak direnean; ondorio latzak orbanak sendatu eta etor-kizuna eraikitze baliatzea. Otegi izan zen ETAKoa eta espetxean izan zen horretatik.


Gaur egun, aldis, euskal gizarte osoak onartzen du ETAK bere jar-dun armatua amaitzeko giltzarri izan zela bere lana. Espainiako jus-tiziak, aldis, espetxeratu egin zuen horregatik eta berarekin Bateragu-ne auzian epaitutakoak. Bestelako-rik erabakitzen ez bada, datorren 2016ko udaberrira arte egon behar-ko dute espetxean, sei urte eta erdi-ko kartzela zigorra osorik bete arte.

Munduko gatazkei begira, ez da hain harrigarria gobernu eta esta-tuak gisako jarrerak izatea haien aurka jardun direnekin; harrigarrie-na da bakea eta bizikidetzaren sendotzeko aukerak daudenean hauek ez baliatzea. PPK presoek sostengu mundua aldiroko atxilotekin ito nahi izatea ez da harrigarria, alde-rantziz, jadanik ez da besterik espe-ro. Harrigarriena da Otegiren aska-tasuna eskatzeko alderdi eta insituzio garrantzitsu gehienek aldetik dagoen mugimendu urria. Adierazgarria ere bada, baina lasai, espetxetik ateratzekoan, gehienek esango dute zein ozen salatu eta zein gogor eskatu zuten bere aska-tasuna. ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



NOLA BELZTU BEHAR ZURIA
Joxan ARTZEn poemak Bide Ertzean,
Asier Sarasola eta Oier Guilanen eskutik

NOLA BELZTU BEHAR ZURIA

ANTZEZLANA

4 lagunentzako
bina sarrera

Apirilak 24, Usurbil
Ordua: 22:00 Lekua: Sutegi

1



INGURU ABENTURA


AGUAKEKO ARROILA JAITSIERA

(1. maila)
4 lagunentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

2 lagunentzako
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

4



Erlea gure sendagile

liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2453. Argia)

BERTSOLARI FINALA

Azkune Arrizabalaga Sendia (Azpeitia)
Blanca Lopez Garcia (Gabiria)

EUREKA

Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)
Nekane Ariz Eskisabel (Usurbil)

EKAINBERRI

Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)
M. Pilar Zeberio Begiristain (Andoain)
Jose Aierbe Mendizabal (Beasain).

PAUL SAN MARTIN

Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
Jon Goti Mendiola (Usansolo)

OKATXU

Leire Elizagarai Rodriguez (Gasteiz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.eus

www.argia.eus/guinea

guinea

argia



BIZI BARATZEA

garaian garaikoa
garaiz

Jakoba Errekondo

**Jakoba Errekondok
ARGIaren eskutik
argitaratuko duen liburua
laster eskuragarri**

*Zure baratzea sortzeko,
moldatzeko eta eusteko
jakin behar duzuna.*